ITXASKARIA

ITXASKARIA

LOS EUSKAROS Y EL MAR

J. Altuna / J. M. Barandiaran / J. M. Busca Isusi
J. Caro Baroja / M. Pelay Orozco

fotografía: Sigfrido Koch Arruti

Redacción en euskara: J. L. Alvarez-Enparantza (Txillardegi)

Xabier Amuriza

Textos fotográficos: Miguel Ortiz de Arratia

PETRONOR

Edita
PETRONOR
Coordinación técnica:
SERVICIO DE RELACIONES PUBLICAS
DE PETRONOR
Selección fotográfica y diseño:
MARC LLIMARGAS △TRIANGLE
Imprime:
IMPRENTA INDUSTRIAL S. A. BILBAO
© Refinería de Petróleos del Norte
PETRONOR
D.L. BI-162 - 1978
ISBN: 84-300-0368-1

Sumario
Aurkibidea

Presentación 7
Aurkezpena
Nemesio Fernández-Cuesta e Illana

Introducción 21
Sarrera
Néstor Basterrechea

De fotografía vasca y fotomaquia 27
Euskal argazkintza eta fotomakia
Jorge de Oteiza

El hombre prehistórico de Vasconia ante el mar y los ríos 31
Itxasoa eta hibaiak Euskal herri'ko lehe-gizakien ikuspegian
José Miguel de Barandiarán

El hombre prehistórico vasco y el mar 49
Histori aurreko gizon euskalduna eta itxasoa
Jesús Altuna

Los vascos y el mar
Euskaldunak eta itsasoa

CAPITULO I 73
I KAPITULUA

CAPITULO II 233
II KAPITULUA

Julio Caro Baroja

Los vascos... el mar... 369
Euskaldunak... itsasoa...
Miguel Pelay Orozco

Sobre la alimentación marina vasca 429
Euskal itsas elikaduraz
José M.ª Busca Isusi

De mi alma y de mi mar 469
Azken gogoeta
Sigfrido Koch Arruti

Presentación
Aurkezpena

NEMESIO FERNANDEZ-CUESTA E ILLANA
Presidente de la Refinería de Petróleos del Norte, S. A. - PETRONOR

¿Qué son diez años en la vida de una empresa? En una primera, superficial apreciación, no parecen gran cosa. Pero ya resultan algo, a poco que se piense en lo que se parecen, respecto a la vida y a la muerte, las empresas y los hombres. Acaso haya tan pocas empresas centenarias como hombres centenarios. Las empresas acusan, incluso más que los hombres, altísimos índices de mortalidad infantil. Mueren, con demasiada frecuencia, en la flor de la vida, afectadas por la epidemia de una crisis total o parcial, para la que casi nunca hay vacunas. O se consumen prematuramente en la leucemia, tan frecuente de la descapitalización, que es como una falta de glóbulos rojos en los análisis contables. Diez años en la vida de una empresa significan, nada menos, que haber alcanzado, casi, la adolescencia; que haber superado las terribles enfermedades empresariales de la infancia. Algo, en resumidas cuentas, que merece la pena celebrar.

Y esta es la fiesta principal de los diez años de PETRONOR. Porque un libro, a poca alma que se ponga en él, es una fiesta. Una fiesta cuya celebración se repite cada vez que las manos de los amigos se emplean en el placer de un nuevo y estimulante repaso. Casi se diría que una fiesta permanente, que puede interrumpirse y reanudarse conforme al gusto del lector. De modo que se pretende que la celebración de este aniversario, del hecho de que esta empresa haya empezado ya el bachillerato de su vida sin mayores quebrantos de salud, perdure y contribuya al recreo de los que, en un día preciso, la celebraron.

Hay, por supuesto, muchas clases de fiestas. Y ésta consiste en poner al alcance de los ojos, y al alcance del sentimiento, lo que nos toca más adentro y más de seguido; lo que no hay manera de ocultar a cualquiera que llegue a nuestro puesto de trabajo: los vascos y la mar. Que no son cosas distintas, sino casi una palpitante redundancia. A nadie se le ocurriría hacer un libro de los vascos y ponerse, para hacerlo, de espaldas al mar. Nada vasco resulta ajeno al mar. Lo vasco, como un río, acaba siempre yendo al mar, aunque para ello tenga que pasar los otros puertos, si es vascongado de sotavento.

Desde Pobeña y La Rigada —desde la puerta de nuestra casa, como quien dice— hasta Fuenterrabía, hay demasiado mar para que los que le nacen cerca se sientan ajenos. Porque hay mares y mares, y no todo se mide por su extensión. El mar vascongado —Bilbao, Plencia, Bermeo, Lequeitio, Ondarroa, Zumaya, San

Zer dira hamar urte enpresa baten bizitzan? Lehen begirada azalean ez dirudite gauza handirik. Baina badira zerbait, bizitzari eta heriotzari buruz, enpresek eta gizonek zer antz duten apur bat pentsatuz gero. Beharbada ehun urteko enpresak ehun urteko gizonak bezain gutxi izango dira. Enpresetan, gizonetan baino areago, haur hilen indizeak oso zorrotzak dira. Maizegi bizitzaren lore lorean hiltzen dira, krisis oso edo erdizko baten izurriak jota eta horientzat ia inoiz ez dago txertorik. Edo goizegi deskapitalkuntzaren leukemia hain maizkorrean itotzen dira eta hori kontaduri azterketetan globulo gorririk eza bezalakoa da. Enpresa baten bizitzan hamar urtek ia nerabezaroa harrapatzea esan nahi du. Hitz batez, hospatzea merezi duen zerbait noski.

Eta hauxe da PETRONORko hamar urteon jai nagusia. Zeren liburu bat, gogo pixka bat ezartzen bazaio, jai bat baita. Jai bat zeinen hospakuntza bergertatzen baita adiskideen eskuek errepasu berri eta zirikatzaile baten atseginari ematen dioten bakoitzean. Etengabeko jaia esango genuke, irakurlearen gogoaren arabera eten eta berhasi daitekeena. Beraz gure asmoa zera da, alegia, urte hurren honen, enpresa honek osasunean ezbehar handirik gabe bere bizitzaren batxilergoa hastearen hospakuntzak iraun dezala eta bere egunean hospatu zutenen jolasgarri izan dadila.

Jaiak, jakina, askotarikoak dira. Eta hau begien irispidean, sentimenaren irispidean, barruren eta hurbilen dagokiguna jartzea da; gure lanpostura datorren edozeini ezkutatzeko modurik ez dagoena: euskaldunak eta itxasoa. Ez dira bi gauza derberdin, ia erredundantzia taupakor bat baizik. Inori ez litzaioke bururatuko euskaldunei buruz libururik egitea eta horretarako itxasoari bizkar emanik jartzea. Ez dago ezer euskaldunik itxasotik urrun dagoenik. Euskal zerak, hibai batek bezala, itxasoa du jomuga, nahiz eta horretarako beste portuak pasatu haizabeko euskalduna bada.

Pobeñatik eta Rigadatik –geure etxeko atetik, esateko– Hondarrabiraino itxaso gehiegi dago inguruan jaiotzen direnak urrun senti daitezen.

Zeren itxasotik itxasora aldea baitago, eta ez da dena bere hedaduraz neurtzen. Euskal itxasoa –Bilbo, Plentzia, Bermeo, Lekeitio, Ondarroa, Zumaia,

Sebastián, Pasajes, Fuenterrabía– es, más bien, un mar intenso. Un mar que no se deja mirar pasivamente; que cría con su ejemplo una raza hermosa, fuerte y activa, tan semejante a la mar, que puede ser tan brava como se quiera, sin perder la ocasión de ser tan tierna y amadora como el querer lo exije.

Pero el aire del mar vasco no se queda en la orilla. El mar está en el fresco que orea, en lo alto, los robledales y los hayedos. En la niebla que barre las laderas y se rasga contra las peñas. En esa lluvia mansa, casi salobre, que ablanda la vida de los hombres del interior.

Lo que tenga de hermoso la fiesta de este libro no lo hemos puesto nosotros al celebrarla. Tendrá la misma hermosura que, engendrada en la identificación de los hombres con el mar, vemos nosotros, cada día, a cualquier hora, en cuanto se nos ocurra levantar los ojos y mirar por encima de nuestro trabajo. Una belleza que nosotros no vamos a pregonar, habiendo cerca, invitadas de honor, en nuestro libro, tan propias y sabias y prestigiosas voces.




NEMESIO FERNANDEZ-CUESTA E ILLANA
Presidente de PETRONOR

Donostia, Pasaia, Hondarrabi– itxaso trinkoa dugu. Pasiboki begiratzerik jasaten ez duen itxasoa; bere arabera enda eder, sendo eta arikorra hazten duena, hain itxasoaren antzekoa non nahi bezain suharra izan baitaiteke, bihotzak eskatzen duen bezain samur eta maitabera izateko aukerarik galdu gabe.

Baina euskal itxasoko haizea ez da bazterrean gelditzekoa. Inguruko freskotasunean, gailurrean, hariztietan eta bagadietan, han dago itxasoa. Maldak garbitzen eta haitzen aurka urratzen den lainoan. Lur barruko gizonen bizitza biguntzen duen euri bare, ia gazi horretan.

Liburu honen jaiak edertasunik badu ez da guk hospatzean jarri duguna. Gizonen itxasoarekin berdintze horretan sorturik, egunero, orduoro, begiak jasotzea eta gure lanaren gainetik begiratzea gogoratzen zaigunaz batera ikusten dugun edertasuna bera edukiko du. Guk aldarrikatuko ez dugun edertasuna noski, hurbil baitaude, ohorez gonbidaturik, gure liburuan, abots hain egokiak eta jakintsuak eta aipatuak.



NEMESIO FERNANDEZ-CUESTA E ILLANA
PETRONORko Lehendakaria



Charco de vida, principio de fecundidad.
Bizi istila, ugalkortasunaren hastapena.



El agua, sus agitadas manos, tratando de borrar la piedra tenebrosa ...
Ura, bere esku irabiatuak, harri ilunbetsua ezabatu nahiz ...

... piedra que se vuelve infinita en su repetida dulzura.
... bere gozotasun berretuan infinitu bilakatzen den harria.





Comienzo de toda vida ...
Bizitza guztien hastapena ...



... que se hace redonda, en la piedra ...

... biribil bilakatzeen dena, harrian ...



... intuyendo otras formas ...

... beste forma batzu intuituz ...



... hendiendo en lo profundo ...
... zakonean arrailatuz ...



... buscando también la paz ...
... bakea ere bilatuz ...

Introducción
Sarrera

NESTOR BASTERRECHEA

Blancos y azules volúmenes de silencio y viento –altas nubes viajeras que fueron espuma de olas– van dibujando el lento perfil lineal y negro que es la Tierra, cuando despunta por los horizontes. Montes, valles, lejanías y pueblos presentidos. Continente de espantos y dulzuras.

El hombre y su aventura flotan precariamente sobre estos abismos de agua, que son desde el principio de los tiempos, cuando la naciente arquitectura de los minerales, las primarias plantas y los peces de la nueva vida.

Navegar es volver a los remotos surcos que la familia humana abrió en los mares para alcanzar otros mundos y vencer al hambre. Navegar para huir por la luz de las estrellas y el fulgor de las constelaciones cardinales.

Navegar por amor a la ancha libertad que habita en el mar.

Constriñendo la escala de los tiempos, has sabido recorrer, Sigfrido, el largo camino de siglos que la vida necesitó para andar desde los fuegos interiores de la caverna, hasta lo que fue sentir la viviente palpitación del mar.
Ilusionadamente te has abierto paso por entre estrechos y olvidados senderos en donde perduran susurros y sombras viejas, hasta descubrir en el paisaje verde –me has contado– una brecha azul que era el mar.

Con tu cámara de salitres cóncavos –mítico y hombre nuevo– has sabido mirar con nuestros ojos antiguos, andar con piernas de pedernal y tocar con manos de roble.

Como cuando el tiempo de los balleneros hasta Terranova, has revivido las movientes formas de unos hombres faenando en sus barcos, por los brumosos colores de las horas tristes, o los estallantes contraluces del espectro solar, cuando la música y el tiempo breve del ocaso anuncian la llegada de la noche que se tiende sobre el mar.

Y la mujer.
La que grita en la venta y los muelles. La que espera pacientemente y cose las redes. La que se yergue entera por sobre las espinas de la angustia. La compañera del hombre.
Nos traes a la mujer.

Urrun-hegietan hisladatzen denean, isilez eta haizezko hutsarte zurik eta urdinek marratzen dute Lurraren zilueta lerrokaria eta beltza; uhin-aparra izan ziren hodei garai bidarick. Zantzu gisa somatutako mendiak, haranak, urruntasunak eta herriak hozituz doaz horretara. Lazturaz eta atseginez oratutako eskualde bat.

Ur-arroila horietan behera ari dira igeri gizona eta giza-mentura. Ur-malkor horiek baitira, hastapenen hastapenetik, lehenengo landareen eta biziera berriaren arrainen hazia.

Gizadiak itsasoetan zabaldu zituen hildo urrunetan barrena, mundu berri bila eta gosea garaitzekotan, berriro itsasketa egitea da ontzian abiatzea. Izarren argiaren eta izar-multzo nagusien diztiraren ihesi joatea da ontzian abiatzea.

Itsasoan bizi den askatasun zabalarekiko maitasunarengatik ontziratzea.

Denboren izaria hertsatuz, Sigfrido, hartzuloetako barne-suetatik hasi eta itsasoaren taupada bizia senditzeraino, mendeetan barrena biziak prestatu zuen bide luzea kurritzen jakin duk hik.

Liluraturik, xuxmurrak eta itzal zaharrak iraun duten bidesketan barrena aurreratu duk heure bidaia; eta azkenean, esan didaanez, itsasoa deritzon zerrenda urdina atxeman duk.

Kresal ozenezko heure ganbera baliatuz –batera mitoaren seme eta gizakume berri– gure begi zaharren bitartez begiratzen asmatu duk; eta sukarrizko iztaz ibili haiz, eta haritzezko eskuz ikutu.

Baleazaleen garaian bezala, Terranova-rakoan, beren ontzietan lanean ari piztu dituk gizon haiek eta beren irudi higikorrak; ordu ilunen kolore lanotsuetan berpiztu dituk; ilunabarraren musikak eta musika iheskorrak, itsas-gainera hedatzen ari den gauaren berria zabaltzen duten unea.

Eta emakumeak.

Conviviendo con los que conviven con el mar, has compartido vigilias, temores, palabras y canciones.
Cerrar los nudos de cuerda y armar los aparejos. Los delfines abriendo la espuma y las gaviotas rastreando la estela...

El éuskaro y el mar.

Me has dicho: "he trabajado hasta agotarme".

Celebramos en esta página, Sigfrido, la belleza de tus imágenes sensitivas, como fe testimonial de la siempre aventura del vasco en el mar. Vigor de espíritu para vencer soledades. Nervio muscular.

Para este libro, Sigfrido, son estas mis palabras que me suben desde mi infancia de rocas y arenas de mareas cambiantes, por entre Matxitxako y el peñón de Ogoño, sobre la playa de Laga. Izaro visto desde Bermeo.

Y una canción olvidada.

Itxasoak urak andi
Terranobara abia adi
goian urdiña, leian ozpiña
Ur eta ur beti, beti
sorterritikan urruti
bañan biotza antxe geldi
urrunago eta maiteago
zaitugu Lapurdi.

Mentan eta kaietan garrasi egiten duen emakume hori piztu duk. Egoarriz zai dagoena eta sareak josten dituena. Larriduraren arantzen gainetik ere jaikitzen den emakume hori. Gizonaren laguna.

Emakumea ekarri diguk.

Itsasoan bizikide direnekin bizikide hi ere izanik, gaubeilak, eta ikarak, eta hitzak, eta kantak partekatu dituk.

Sokaren korapiloak lotu dituk, eta apailuak eraiki. Izurdeak aparrean ari eta antxetak aztarnaren hildotik ikusi dituk...

Euskal gizona eta itsasoa.

Eta hau aitortu didak: "lehertu arte egin diat lan".
Orrialde hauetan, Sigfrido, hire irudi sendikorren edertasuna ospatzen diagu; itsasoan euskaldunak ezagutu duen etengabeko menturaren lekuko. Zain giharretsua.

Hauek dituk, Sigfrido, haurtzaroaz geroztik nigan igo diren hitzak. Matxitxako eta Ogoño harkaitzaren arteko arrokaz eta hondarrez, itsasaldi aldakorrez, eta Laga-ko hondartzaren gainean, oratuak dituk. Izaro Bermeo-tik ikusia.

Eta ahantzitako kanta bat.

Itxasoak urak andi
Terranobara abia adi
goian urdiña, leian ozpiña
Ur eta ur beti, beti
sorterritikan urruti
bañan biotza antxe geldi
urrunago eta maiteago
zaitugu Lapurdi.

De fotografía vasca y fotomaquia
Euskal argazkintza eta fotomakia

JORGE DE OTEIZA

Amigo XIFRIDO KOCH, me interesa una reflexión lo más profunda y estética posible sobre problemáticas de una fotografía vasca, sobre vosotros los fotógrafos vascos, sobre ti. Tengo algunas notas para este trabajo. Quisiera hablarte de fotografía, de tu propia fotografía desde mi escultura como fotógrafo, pues te hago esta confesión, yo como escultor lo que he hecho es fotografía, y es desde esta fotografía que tendría que tratar al hablar desde mí, de la fotografía como fotomaquia, como desafío y combate con la luz, y del color mismo como un código de ocupaciones y desocupaciones con la luz.

De niño comencé mi escultura como fotógrafo, construí yo mismo mi primera máquina, haciendo un pequeño agujero en una piedra, para descubrir distinto lo que veía o no veía bien, era un punto de luz que mi agujero definía en redondo, un fotograma que obtenía de un mundo en la sombra, un instante de comprensión luminosa y espacial. Y cuando terminé de escultor fui estropeando voluntariamente mi vieja cámara oscura de fotógrafo, al abrir la escultura de mi Caja vacía para que le entrase y se llenase toda de luz.

Pero en estos momentos no puedo ocuparme en esta reflexión, he trabajado mucho este último tiempo, no estoy contento conmigo mismo, no estoy contento con los demás, me encuentro muy cansado. Sé de tus proyectos sobre un próximo, personalísimo y ambicioso libro tuyo, creo que estaré preparado para ese momento. Y si tengo que explicarte este cansancio, es la triste realidad política en nuestro País, nuestra ya probada incapacidad política para todo. Este sentimiento pesa de tal modo en mi ánimo que no puedo pensar en nada que no sea tratar de no pensar.

Querido Xifrido, un cordial y fuerte abrazo, OTEIZA.

XIFRIDO KOCH adiskidea, ahalik eta gogoetarik zakonena axola zait euskal argazkintzaren arazoetaz, zuetaz, euskal argazkilari horietaz, zutaz. Badut zenbait ohar lan horretarako. Argazkintzaz hitzegin nahi nizuke, zure zerorren argazkiaz nire eskulturatik argazkilari bezala begiraturik. Argazki horretatixe tratatu beharko nuke, neuregandik hitzegitean, argazkintza fotomakia bezala, argiarekiko desafio eta burruka bezala, eta kolorea bera, argiarekiko axola eta desaxolen legedi bezala.

Haurretan ene eskultura argazkilari gisa hasi nuen, neronek ene lehen makina egin nuen, harri bati zulotxo bat eginik, bereziturik erideteko ikusten nuena edo ongi ikusten ez nuena, argi puntu bat zen ene zuloak biribilean difinitzen zuena, fotograma bat, itzalpeko mundu batetatik ulermen argitsu eta espazialezko une bat lortzen zuena. Esultore izatera heldu nintzenean ene argazkilari kamera ilun zaharra nahiez gainera lorrintzen ari nintzen, ene kutxa hutseko eskultura irekitzean, argia sartu eta arras argizta zedin.

Baina une honetan ez daukat gogoeta honetaz arduratzerik, azken aldion lan asko egin dut, ez nago neure buruarekin pozik, ez nago besteekin pozik, osonekaturik aurkitzen naiz. Badakit nolako asmoak dituzun zure hurren liburuaz, oso zeurea eta gutiziatsua. Uste dut ordurako prest egongo naizela. Eta neke honen berri adieraziko banizu, gure herriko egoera politiko tristearen gorabehera da, edozertarako dugun ezgaitasun politiko jakina. Sentimendu honek hala zapaltzen du ene gogoa non ezin baitut ezertaz pentsatu, ez pentsatzen saiatzeaz baizik.

Xifrido maitea, besarkada bihozkor eta sendo bat. OTEIZA.

El hombre prehistórico de Vasconia ante el mar y los ríos
Itxasoa eta hibaiak Euskal herri'ko lehe-gizakien ikuspegian

JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN

Para conocer los orígenes de nuestro grupo étnico y de su cultura, siquiera sea en algunos de sus aspectos, deberemos investigar las raíces de Euskal Herria.

Un largo proceso de ensayos, de labores, de adquisiciones, de fracasos, de adelantos, de préstamos y de invenciones en todos los aspectos de la cultura de nuestro pueblo ha desembocado en nuestra situación actual y está gravitando sobre cada uno de nosotros.

Hagamos nuestra aquella sentencia de los antiguos "conócete a ti mismo". Para realizarla debemos conocer nuestro pueblo en sus raíces y en su ulterior desenvolvimiento. Si no lo hacemos, no lograremos tener conciencia histórica ni la de nosotros mismos. Mi empeño de hoy es señalar un aspecto de nuestras raíces: el papel que desempeñó el agua –los ríos y el mar– en la vida de nuestros antepasados prehistóricos.

En esta empresa puede ayudarnos el conocimiento del suelo y del clima. Es sabido que cada pueblo se conduce hasta cierto grado en función del escenario en que actúa.

Nuestro pueblo tuvo su cuna en los Pirineos y en las anchas comarcas de su contorno. La Vasconia actual –parcela de la vieja Euskal Herria– se halla en la zona más rebajada a lo largo de aquella cordillera, rodeando por el Norte un golfo del Océano Atlántico: el golfo de Vizcaya.

No es tierra llana en gran parte, sino montuosa. Pero ofrece pasos fáciles tanto para el hombre como para los animales. Prueba de esto es la existencia de facerías de pueblos de ambas vertientes a lo largo de la zona axial de la cordillera en nuestro territorio.

Las cumbres y los barrancos actuales, las montañas y las vegas llanas son elementos que, en líneas generales, representan, al parecer, el relieve original de nuestro país al acabar de emerger del océano. Los más, sin embargo, han llegado hasta nosotros profundamente asurcados.

Euskal Herriaren erroetan ikasten ahal degu gure izakeraren eta ezikeraren asera edo sortzea, heuren ikusgune batzuena bederen.

Lanbide horretan, tokien eta giroen ezaguerak laguntzen daukute. Herria non bizi, hango ikusbiran eta lurretan bere jokabidea kutsatzen du eta moldatzen.

Ahuñamendin edo Pirineo mendietan eta hauen inguruko lurralde zabaletan izan zuan bere seaska gure herrialde honek. Gaurko Euskal Herria berriz –lehenaren zati txiki hau– mendi saldo harek duan unarik apalenean edatua degu, Atlant-itxasoaren golko bat –Bizkaiko itxas-golkoa– besarkatzen duala.

Es da ordea toki laua, ez berdina, menditsua baiño. Gizakientzat eta ihizientzat Ahuñamendik duan iragangurik zabalena bai, eta lurralde batetik besteruntz irteera aski irekiak dituana.

Oraingo gain eta ordekak, mendiak eta sakanak gure lurralde honek sortzez –urgaindu zenetik– halatsu ditu. Gehienak ordea geroztik aski hildokatuak.

Lurrak ez ezik urak ere ba-du hor zeregiñik lehen-aroetatik gaurdaiño. Iturriadar asko eta hibaiak sarri dijoatz Ahuñamendi gaillurretik alde bietaruntz: Ebro, Bayas, Zadorra, Ega, Arga eta Aragon egoaldean; Kadagua, Nerbion, Ibaizabal, Oka, Lea, Artibai, Deba, Urola, Oria, Urumea, Bidasoa, Uhertzi, Errobi, Biduze eta Aturri itxasaldean.

Hibai hauek ordea ez dira bati leku berean edota mailla berean ibilli. Aldaketak ugari: ezker-eskubi, aldietan; beren bidea sakonduaz beti. Sakontze horretan gure hibaiak toki askotan beren gaurko zorua amabi-amabost metroz beherago daukate gure aspaldiko *Homo primigenius* gizakiaren azken-aldian baiño.

Beti arrainen bizileku izan diranak, batzuek orain, aski puzunatuak, arrainen galduleku billakatu dira.

Además de la tierra es el agua la que ha actuado y está actuando sobre ese relieve desde tiempos muy remotos hasta los actuales. Aguas de numerosos manantiales que alimentan arroyos y ríos, partiendo de la zona axial del Pirineo vasco, descienden por ambas vertientes: Bayas, Zadorra, Ega, Arga y Aragón del lado meridional, los cuales desembocan en el Ebro; Kadagua, Nervión, Ibaizabal, Oka, Lea, Artibai, Deva, Urola, Oria, Urumea, Bidasoa, Uhertzi, Errobi o Nive y Adour o Aturri, que van al Atlántico.

Tales ríos no han corrido siempre en los mismos lugares y niveles. Han cambiado hacia derecha e izquierda, sobre todo en las zonas bajas de su recorrido, y han ahondado su lecho. En esta constante denudación y asurcamiento de su base nuestros ríos presentan su lecho en muchos lugares a doce y quince metros más abajo que en los últimos tiempos de nuestro remoto *Homo-primigenius*.

El mar y los ríos crían peces y moluscos, si bien ahora algunos de los segundos, demasiadamente polutos, se han vuelto nocivos para todo ser viviente.

Al Norte del país tenemos el mar: 200 km. de costa con suaves y amplias playas y veinte puertos naturales entre el Adour y la ría de Bilbao.

El agua, que nos sirve como alimento y como elemento útil para diversos tipos de limpieza y para baños, ayuda al hombre con su peso y fuerza en diversas labores e industrias desde siglos atrás, nos facilita las comunicaciones con gran parte de los países del mundo y nos proporciona, para nuestra manutención, toda clase de peces y mariscos.

Quizá por esta última proporción, los prehistóricos de nuestro país escogieron para sus moradas las grutas y lugares situados en la vecindad de los ríos y en la costa. Tales son, entre los más antiguos, *Laminazilo* de Istúritz, *Harixtoy* de San Martín de Arburua, *Olha* de Cambo, *Ilbarritz, Bidart, Aitzbitarte* de Rentería, *Lezetxiki* de Mondragón, *Kurtzia* de Barrica y *Axlor* de Dima.

En las postrimerías del interglacial Riss-Würm y en la primera parte del período glacial Würmiense –en el Musteriense de los prehistoriadores– vivía

Iparraldean degu itxasoa: 200 kilometroz luze dan itxasbazterra, hondartza lauak bere altzoan eta hogei kaia bere adarretan.

Urak egarria asetzen digu. Garbitzen eta beratzen gaitu. Bere indarrez –gaur beintzat– laguntzen digu eta noranaiko ibildibeak ematen. Eta mota guztietako arrain eta izpelkiak azkurritzat eskaintzen.

Oregaitik, bearbada, hemengo lehengizakien bizilekuak hibai-inguruetan eta itxasondoan gehientsu ikusten ditugu. Hala, adibidez –ezagutzen ditugun zaharrenak aipatzeko–, Laminazilo (Isturitz), Harixtoy, Olha, Ilbarritz, Bidart, Aitzbitarte, Lezetxiki, Kurtzia, Axlor. Riss-Würm azkenaldean eta Würm izoztearen lehen-garaian –Mustier-aldian, alegia– hor zebillen, Euskal Herrian gaurdaiño ezagutzen degun gizakirik zaharrena, orain dela 60.000 urte eta geroago. *Homo primigenius* edo *Neanderthal gizakia* izenagaz adierazten degu.

Eizetik bizi ziran gehientsu garai hartan. Baiñan arrantzua ere etzan ez ezaguna. *Idus* izeneko arraiaren aztarnak agertu zituan Passemard'ek Ganbo'ko Olhan, ondoko *Errobi* hibaian atxemana bearbada. Toki berean, baiñan mailla epelean, agertu ziran *Rana* eta *Bufo* izeneko igelkiak ere.

Würm izoztearen azkenaldi luzean, *Homo sapiens sapiens* edo Crô-Magnon izeneko gizakia genduan gure lurralde hontako biztanle. Eiztaria hau ere. Baiñan hor zeuden itxasoa eta hibaiak. Hauek beti beren bideak sakontzen eta aldian aldiko arrikadiak egaletan uzten, lekuko bezala.

Bizitokiak gehienetan hibaitik urbil. Adibidez, Gatxarria, Isturitz, Lezia (Sara), Aitzbitarte, Ermittia, Lezetxiki, Ekain, Abittaga, Atxeta, Atxurra, Bolinkoba, Atxuri, Silibranka, Venta de Laperra, Atabo, Koskobilo, e.a..

Baita beste asko itxasotik urbil edota itxas-ertzean. Hala Ilbarritz'en, Bidart'en, Jaizkibel'en, Altxerri'n, Urtiaga'n, Lumentxa'n, Sta. Katalina'n, Santimiñe'n, Aspe-Busturia'n, Kurtzia'n, Sopelana'n, e.a..

Leku hauetan bizi ziranak ba-zuten itxasoan zeregin. Hori adierazten digute garai haietako gizakien aztarnategiak. Adibidez, Santimamiñe'n Auriñac-

en esta tierra el tipo de hombre más antiguo que hasta ahora conocemos en Euskal Herria: *Homo primigenius* o el hombre de Neanderthal.

Este hombre vivía de la caza, sobre todo. Sin embargo, no desconocía la práctica de la pesca. Passemard descubrió huesos del pez *Idus* en Olha, capturado probablemente en el vecino río Nive. En el mismo yacimiento y estrato musteriense, si bien en otro nivel, aparecieron también restos de ranas y sapos.

En el largo transcurso de la última parte del período glacial Würmiense vivió en nuestra tierra otro tipo humano, *Homo sapiens sapiens* o el hombre de Crô-Magnon. También éste era cazador. Pero ahí estaban los ríos y el mar ofreciendo pescados y mariscos. El mar continuaba avanzando por las ensenadas, y los ríos surcando sus lechos y dejando en sus orillas terrazas aluviales escalonadas, como testigos de sus antiguos lechos.



Los albergues de este nuevo tipo de hombre se hallan generalmente cerca de los ríos. Así Gatxarria (Sule), Istúritz, Lezia (Sara), Aitzbitarte (Rentería), Ermittia (Deva), Ekain Lezetxiki, Abittaga (Amoroto), Atxeta (Forua), Atxurra (Berriatua), Bolinkoba (Abadiano), Atxuri y Silibranka (Mañaria), Venta de Laperra (Carranza), Atabo (Alsasua) y Koskobilo (Olazagutía).

Otros albergues se hallan en la costa (algunos sobre el acantilado y rompiente de las olas), como en Ilbarritz, Bidart, Jaizkibel, Altxerri, Urtiaga, Lumentxa, Santa Catalina (Lequeitio), Santimamiñe, Kurtzia, Sopelana, etc.

Quienes vivían en estos lugares tenían, desde luego, algo que hacer en el mar. Esto nos lo prueban los restos de sus hogares, como las vértebras de peces del Auriñaciense de Santimamiñe y sus mariscos *Littorina obtussata* y *Clausilia.*

En el mismo período los habitantes de Laminazilo de Istúritz utilizaban los mariscos *Littorina littorea,* provistos de orificio de suspensión, no para comer sino para llevar colgados, quizás como amuletos.

aldiko maillan ageri dira arrainen bizkarezurrak eta maxkur batzuek, *Littorina obtussata* eta *Clausilia* batez ere.

Aldi berean Isturitz'ko Laminazilon bizi ziranak *Littorina littorea* izeneko izpelkia, asmoz zulatua, zerabilkiten: ez ordea jateko, tintil edo kutun bezala baiño.

Solutre-aldian isturitztarrak ezur batzuetan marreztu zituzten arrain-iduriak. Aldi berean, Ermittian, ba-ziran arrainen ezurrak: horietako batzuek, dirudienaz, izokiarenak. Hauekin batera edo mailla berean agertu ziran *Littorina obtussata* izeneko maxkur txikiak ere.

Madelein-aldian arrain-ezurrak berriro aski adierazten digute Santimamiñe'ko gizakiak urtarako zuten joera. Berdin dakuste han ikusi ditugun izpelkiak ere, batikbait *Littorina littorea, Purpura lapillus, Pecten maximus, Chlamys islandicus, Cypraea, Turritella, Pectunculus* eta *Monodonta* edo mangoliñoak.

Hori bera digute Altxerriko eta Ekaingo labarrietan dauden arrain-iduriak; baita Isturitz'ko arpean bildutako hiru ezurretan egiñiko arrain-marrezturak ere.

Lumentxa'n ere, garai horretan, ba-zerabilkiten arraina. Aseran baita *Littorina obtussata,* gerroago berriz *Littorina littorea, Triton nodifer, Nassa reticulata* (eusk. maskorra), *Dentalium, Purpura lapillus, Pecten* eta lapak. Madelein-aldia azkenetan zalarik agertu ziran hemen Mangoliñoak.

Ermittia'k ikuspegi bera damakigu.

Urtiaga'n, aldi honen aseran, *Littorina obtussata, Nassa, Turritella* eta *Purpura lapillus,* denak zulatuak: beraz ez dira jateko ekarriak. Gero, *Littorina littorea, Halyotis tuberculata, Australium rugosum* eta arrainen bizkar-ezur txikiak.

Beraz, aldi luzean, itxas-inguruan bizi ziran gizakiak izpelkia jakitzat ausarki erabilli zuten. Uretik ba-zuten bada zerbait bizigarri. Bizkitartean lurreko ihiziak ziran jakitarako nagusi.

En el período Solutrense los habitantes de Istúritz grabaron figuras de peces en varios huesos. En el mismo período los que vivían en Ermittia nos dejaron huesos de peces, al parecer, de salmones. Con éstos aparecieron también los pequeños mariscos *Littorina obtussata.*

Durante el período Magdaleniense los huesos de peces hallados en Santimamiñe nos dan a conocer que continuaba entre sus moradores la afición a los alimentos acuáticos. Lo mismo nos enseñan los mariscos, como *Littorina littorea, Purpura lapillus, Pecten maximus, Chlamys islandicus, Cypraea, Turritella, Pectunculus, Monodonta* o magurios.



Esto mismo nos enseñan las figuras de peces que existen en los muros de las cavernas de Altxerri y de Ekain, como también las figuras grabadas en tres huesos de Istúritz.

También en Lumentxa pescaban peces durante el Magdaleniense. Además, al principio de este período recogían *Littorina obtussata,* más tarde *Littorina littorea, Triton nodifer, Nassa reticulata, Dentalium, Purpura lapillus, Pecten* y *Patella.* Al final aparecen los magurios.

Ermittia nos ofrece el mismo cuadro.

En Urtiaga, al principio del período, hay *Littorina obtussata, Nassa, Turritella* y *Purpura lapillus,* todos provistos de orificio de suspensión: no han servido, por lo tanto, de alimento sino de colgantes, quizá de amuletos. Más tarde aparecen *Littorina littorea, Halyotis tuberculata, Australium rugosum* y pequeñas vértebras de pez.

Los datos precedentes nos dan a conocer que los prehistóricos que vivieron en la costa vasca utilizaron durante largo tiempo, como comestibles los mariscos y los peces. Con todo, los animales cazados constituían su principal alimento, según lo demuestran los huesos de animales terrestres que aparecen

Izpelkien artean mangoliñoak aipa ditugu, batez ere Santimamiñe eta Lumentxa'ko janari bezala. Denak ordea maxkurra osorik daukatela esan gentzake, ez dute ere sutan egon diran egiterik. Jateko ekarriak, etzuten horrela beren okelea eskaintzen edo ateratzen. Behar ziran apurtu edo ur berotan sartu. Baiñan ura sutan berotzeko, etzan orduan ontzi egokirik: ez lurrontzirik, ez menastazkorik. Zurezko ontzietan berotzen ahal zuten arri gurituen bidez. Egikera hori gaurdaiño iritxi zaigu, esnea berotzeko batikbait.

Garai hartako beste aburu eta oituren zantzuak ere heldu zaizkigula dirudi. Euskal Herrian baditugu amabi arpe, beren barrungo labarrietan ihizien iduriak –Paleolitos-arokoak– aurkezten dizkigutenak. Hauen artean ba-dira arrainenak ere. Dirudienez, orduko lagunak arpeetan ihizien iduriak ikusten noski eta berberak hantxe idurikatzen edota biribiltzen eta osatzen. Irudimen hau herriko esaundetan eta sinismenetan iritxi zaigula dirudi. Arpeetan ireluak ihizien idurian bizi dirala askok diote eta beai, opari bezala, arkoskoak aurtiki ohi dizkie.

Orregatik bearbada lehengizakien bizilekuetan ikusi izan ditugu arkosko edo arribiribill asko, iñoiz toki bitxietan asmoz ipiñiak noski. Dirudienez, ohitura honen ondorioa da arpetako ireluai arkoskoak eskaintzea. Obioneta'ko hillai eta Aralar'ko San Migel'i ere gauza bera egiten die. Berdin egiten zutela *Chabola de la Hechicera* izeneko trikuarrian eta *Aizkomendi'*koan ere esan gentzake.


Azil-aldian Santimamiñe'n arrain-ezurrak eta izpelkiak ausarki. Hauetan mangoliñoak lehen baiño geiago. Ba-dira itxas-egaztiak ere: antzarrak eta urolloak.

Lumentxa'n ere agertu ditugu mangoliñoak ugari, baita muxilluak, *Triton nodifer, Cardium edule* (eusk. margola) eta *Cypraea europaea* ere.

Ermittia'n, Azilaldiaren aseran, *Littorina littorea* batzuek; gero mangoliñoak ugaltzen, baita lapak eta muxilluak ere. Urtiaga'n ere berdintsu.

mezclados con los restos de mariscos y de peces en los yacimientos que conocemos aquí.

Entre los mariscos, hemos mencionado los magurios *(Monodonta),* como uno de los comestibles de Santimamiñe y de Lumentxa. Todos conservan entera su concha y sin señales de haber estado expuestos al fuego. Eran aportados como comestibles. Pero la carne de este marisco no se obtiene si no es rompiendo su concha o calentándolo al fuego o introduciéndolo en agua caliente. Este último procedimiento fue, al parecer, empleado por los prehistóricos de Santimamiñe y de Lumentxa. Para calentar el agua sólo disponían de vasijas de madera, en las que se logra calentar los líquidos únicamente introduciendo piedras candentes en su masa, como lo hacen todavía en muchas casas de Vasconia para calentar la leche.



Ecos de otras costumbres de aquellos remotos tiempos nos llegan también, según nos lo indican ciertos indicios que queremos señalar. En nuestro país tenemos una docena de cavernas que en sus muros muestran figuras de diversos animales. Entre tales figuras las hay también de peces. Datan del Paleolítico superior. Diríase que los prehistóricos veían en los antros tales animales o los proyectaban sobre sus muros. Digo que los veían, porque es frecuente que el artista, viendo que las quiebras de la roca, la línea de una esquina o borde de una peña, la prominencia y el hueco del muro parecen representar parte de la silueta de un animal, la completa con su pintura o con su buril. Esta visión que tenían los prehistóricos parece haber llegado hasta nosotros. Muchos creen todavía que en nuestras cavernas viven genios de figura de caballo, de novillo, de cabra, etc., y al pasar cerca de la entrada de tales antros les lanzan, como ofrenda, cantos de piedra. Esta práctica observaban también hasta hace poco en el dolmen de Obioneta (Aralar), como lo han hecho también, al parecer, en la *Chabola de la Hechicera* (dolmen de Elvillar) y en el dolmen de *Aizkomendi* (Eguílaz), y todavía lo hacen en el santuario de San Miguel (Aralar).

Por eso quizás aparecen en algunos yacimientos paleolíticos y en otros más recientes muchos cantos rodados, colocados en algunos casos intencionadamente en lugares especiales. Costumbre ésta de la que podría proceder la

Dirudienaz, litorina-aldia igaro zan eta ondoren, giroa biguintzeaz noski, mangoliñoena heldu.

Azil-aldiaren ondoren, Santimamiñe'n, izpeltegi aundi bat utzi zigun garaia asten da: Mesolitos-aroa, alegia.

Han ba-dezu guztietarik ausarki: ostrak, txirlak, *Scrobicularia,* muxilluak, lapak, mangoliñoak, *Murex, Chlamys, Mya, Unio, Pecten, Nassa, Solen* eta zenbait litorina.

Izpelkiekin ageri dira itxas-egaztien ezurrak. Batez ere hauenak: *Vanellus cristatus* (eusk. egabera), *Porzana maruetta* (eusk. urollo), *Anas boschas* (eusk. aate), *Anser cinereus* (eusk. antzar).

Lumentxa'n ez dira asko aldi hontako izpelkiak. Ba-dira mangoliñoak, lapak eta zenbait *Halyotis, Australium rugosum* eta *Littorina littorea.* Ez da ageri ordea lehengo aldietako *Littorina obtussata,* naizta gehienean tintil bezala izan bere zulotxoarekin.

Neolitos-aroko maillan Santimamiñe'n jarrai du izpeltegiak bere ostra, lapa, mangoliño eta karramarroakin, eta gaiñera *Gryphaea, Chlamys, Solen, Tapes, Anomya, Mytilus, Murex, Nassa reticulata, Dentalium vulgare, Cardium* eta arrainen bizkar-ezurrekin.

Lumentxa'n izpelki gutxi: lapak, mangoliñoak eta *Australium rugosum.*
Urtiaga'n mangoliñoak eta lapak ugari; muxilluak eta ostrak gutxi eta zenbait karramarro, *Nassa, Halyotis* (eusk. Andra-Mari zapata) eta *Australium rugosum.*

Eneolitos-aroan izpelkiak gutxiagotzen dira Santimamiñen. Ba-dira ordea lapak, mangoliñoak, muxilluak ostrak, zenbait *Nassa reticulata* (eusk. maskorra) eta arrain-ezurrak. Jaki hauek, naiz gerozta gutxiago, ageri dira burdinori eta burdin-aroetako mailletan ere.

práctica ya mencionada de ofrendar cantos de piedra a los genios de ciertas cavernas.

En el período Aziliense son numerosos los huesos de peces y los mariscos en Santimamiñe. Entre estos últimos, sobre todo, abundan los magurios más que en el período anterior. Existen también huesos de aves acuáticas, como de gansos y gallinetas.

También en Lumentxa había muchos magurios, mejillones, *Triton nodifer, Cardium edule* (en vasc. *margola*) y *Cypraea europaea*.



En Ermittia, al principio del Aziliense, aparecen algunas *Littorina littorea;* pero los magurios van en aumento, como también los mejillones y las lapas.

Urtiaga presenta cuadro semejante al de Ermittia.

Parece que en este tiempo se acababa la sazón de la litorina, por el cambio de clima seguramente, y advenía la del magurio.

Tras el período Aziliense empieza en Santimamiñe un período que nos dejó como testigo, un grueso conchero: es el período Mesolítico.

Hay allí numerosos mariscos de diversas especies, formando espeso amontonamiento; ostras, chirlas, lapas, magurios, *Murex, Chlamys, Mya, Unio, Pecten, Nassa, Solen* y algunas litorinas.

En el conchero aparecen huesos de aves marinas, como de *Vanellus cristatus* (en vasc. *egabera*), *Porzana maruetta* (en vasc. *urollo*), *Anas Doschas* (en vasc. *aate*) y *Anser cinereus* (en vasc. *antzar*).

En Lumentxa hay pocos mariscos de este tiempo. Debemos señalar, sin embargo, los magurios y las lapas, como más abundantes, y algún *Halyotis* (en vasc. *Andra-Mari-zapata*), *Australium rugosum* y *Littorina littorea.* No aparece la

Ikusi degu beraz hibaietatik eta, batez ere, itxasotik euskaldunak aspaldidanik bere azkurria biltzen alegiña egin duala eta ez alperrik.

Lehen-aroetako aztarnak aski erakusten digute itxasaldeko euskaldunen joera. Bide hortarik ibilli dira ondorengoak munduan zear beren ontziakin urak ebakiaz eta arrain mota guzietarik beren uzta eta arrantzua egiñaz.

Itxasoa, hibaiak, urgeldiak eta iturriak aspaldidakik izan ditu bere gogoko euskaldunak. Horien ikuskaria eta oroipena, esaundaz eta irelkutsuz inguraturik datorzkigu.

Izaki bizien egitea agertzen digute maiz herri-esaundetan eta ipuietan. Hala itxasoko *Traganarru,* arrantzaleentzat ain bildurgarri dan zurrunbilloa. Baita iñoiz itxas-una aserrea, olatu izugarriakin hildokatua, uste danez ez berezkoa, ireluak edo gaizkiñak arrantzaleen ondamenerako eta hauek iruntsitzeko astindua baiño. Nork ez du entzun itxasaldeko ipuiak diona: bein arrantzaleak uranbillen bulzadaz larriturik zebiltzala, haietako batek uranbill aundienari gañera jaurtiki ziola arrankazia eta odola aterazi. Bereala itxasoa baretu omentzan. Irelua –itxasoa astintzen zuan sorgiña– jo omen zuan arrankaziak eta burua zauritu.

Hibai eta urgeldi asko dira Euskalherrian aipagarriak eta... bildurgarriak.

Hala Urbion'go eta Arreo'ko osiñak. Hauetatik irteten omen dira laiño edo odei biribil aserreak iñusturi eta oiñazkar-urrika, herrien eta landen gaiñera kazkabarra eta harria jaurtikitzen dutenak.

Ba-ditugu beste urgeldi batzuek ere, uste danez lehenago herrien bat edo jauregi bat izandako tokietan. Hauek ondatzeko, bat-batean sortuak dirala esan ohi da. Horrelako lau urgeldi ditugu hemen: Kaizedo'ko osiña, Arbeiza'koa, Muriskot (Miarritz'en) eta Bayonazar oraingo Ondarraitz'en (Hendaya'ko ondartzaren ondoan dauden bi aitz-tontorren tokian).

Beste urgeldi batzuek ireluen bizilekuko sarrera estaltzen dutenak omen dera: adibidez, St Pée'ko Utsalea'n. Edota berak ireluen bizileku direla ere ba-diote

Littorina obtussata de épocas anteriores, en las que los ejemplares hallados estaban provistos de orificio de suspensión.

Durante el período Neolítico seguía el conchero de Santimamiñe con sus ostras, lapas, magurios, cangrejos y *Gryphaea, Chlamys, Solen, Tapes, Anomya, Mytilus, Murex, Nassa reticulata* (en vasc. *maskorra*), *Dentalium vulgare, Cardium* y vértebras de pez.

En Lumentxa, pocos mariscos, entre los cuales cabe señalar lapas, magurios y algún *Australium rugosum.*

En Urtiaga, numerosos magurios y lapas, escasas ostras y mejillones y algún cangrejo, *Nassa, Halyotis* y *Australium rugosum.*

En el período Eneolítico, los mariscos disminuyen en Santimamiñe. Hay ostras, lapas, magurios, mejillones, algunas *Nassa reticulata* y huesos de peces. Estos mismos mariscos y algunas vértebras de pez aparecen también en los períodos del Bronce y del Hierro.

De los datos procedentes cabe deducir que el hombre prehistórico vasco ha procurado buscar desde época muy antigua, una parte de sus alimentos en los ríos y, sobre todo, en el mar, con resultado positivo en muchos casos: en general, muchos mariscos y relativamente pocos peces.

Los residuos de alimentación que el hombre prehistórico nos dejó en sus albergues nos enseñan cuál era uno de los quehaceres de los habitantes de nuestro país, sobre todo en la zona costera. Ellos demostraron una afición que después han seguido y desarrollado con éxito sus sucesores cruzando el océano con sus embarcaciones y pescando en muchos mares.

El mar, los lagos, los ríos y las fuentes los ha aprovechado el vasco desde épocas antiguas. Y los ha humanizado de suerte que su visión y su recuerdo ha envuelto en una atmósfera legendaria y mítica.


zenbait herritan: Juxu'ko *Laminosin,* Sara'ko *Lamuxain,* Bera'ko *Lamiosin,* Arano'ko *Lamixim,* Oñati'ko *Lamiategi,* Ataun'go *Lamiosin,* Motriko'ko *Lamiñategi* eta Zeanuri'ko *Lamiñapotsu.*

Iturri batzuek ere irelutegiak dirala diote toki askotan. Hala Lamindau'ko Petralanda'n dago iturria eta Arbulo'ko *Mariturri.* Honen ondoko belarra oñakin sapaltzen duanak oroimena galtzen omen du.

Beste iturri asko berriz onuratsu dira: Yantzi'ko San Juan-iturri, Beorburuko Saniturri, Betelu'ko Damaiturri eta Iturrisantu, Anozibar'ko Aingiru-iturri. Iturri hontan, Donibanez, lagun asko garbitzen eta beratzen dira eta berari, oparitzat, jaurtikitzen txanponak. Santa Engrazian berdin. Uxue'ko uraskara berriz, harriak, oparitzat, botatzen dituzte; baita Xabier'en ere.

Toki batzuetan Gabonetako ogia oparitzat eskaintzen diote hibai gaindituari eta itxaso aserreari, baretu ditezen.

Urak lehen-aroetan zelako garrantzia Euskalherrian izan duan jakinerazteko ezaugarri batzuek aipa ditugu, baita ordutik heldu zaizkigun oiartzun eta susmurrak ere. Hori zan nere gaia eta asmoa.



En efecto, tales elementos aparecen frecuentemente con apariencia de seres animados, vivientes y dotados de actividad voluntaria en las leyendas y otros relatos populares. Así *Traganarru* o tromba del mar, tan temible para los marinos, es considerado como un terrible monstruo que atrae hacia sí las embarcaciones con sus tripulantes y las engulle. Era parecida, en algunos casos, la idea que tenían del mar embravecido con olas de singular altura, las cuales, más que un fenómeno natural, parecían a muchos un genio transfigurado o una sacudida violenta producida y manejada por genios o personajes maléficos para perder o sumergir a los pescadores. Es conocido aquel caso de la leyenda "de las tres olas" muy popular en los hogares de nuestra costa: que en un día aciago en que hallándose unos pescadores en situación apurada, sacudidos inusitadamente por los golpes de fuerte oleaje, uno de aquéllos lanzó su arpón sobre la cresta de la ola que se le echaba encima y le hizo sangrar. Inmediatamente se calmó el mar. El arpón había alcanzado al genio –a la bruja que sacudía el mar– y le hirió la cabeza.

Existen muchos ríos, remansos y lagos memorables y misteriosos en Vasconia. Tales son, por ejemplo, el pozo Urbión y el lago de Arreo. De éstos, según cuentan las leyendas, salen nubarrones tempestuosos con gran aparato de relámpagos y truenos, que llegan lejos lanzando granizo y pedrisco sobre los pueblos y sus campos.

Tenemos también otros lagos que, según los relatos populares, se hallan en lugares donde hubo un pueblo o un palacio. Habían aparecido súbitamente hundiendo a éstos en castigo del mal comportamiento de sus moradores. Así son la laguna de Caicedo, la de Arbeiza, el lago Muriscot (Biarritz) y Bayonazar o el antiguo pueblo así llamado que, según la leyenda, estuvo en Ondarraitz cerca de la playa de Hendaya y que fue súbitamente sumergido por el mar.

Hay también pozos de agua que, según es creencia popular, cubren la entrada de supuestas moradas de genios –lamias, brujas, maides–. Tal es el caso del pozo o remanso de agua existente bajo el puente de Utsalea en St Pée.

En muchos lugares se dice que ciertos pozos de agua son habitaciones de los genios llamados *Lamin.* Tales son, por ejemplo, el llamado *Laminosin* de Juxu, *Lamuxain* de Sara, *Lamiosin* de Vera, *Lamixin* de Arano, *Lamiñosiñe* de Atáun, *Lamiategui* de Oñate, *Lamiñategui* de Motrico y *Lamiñapotsu* de Ceánuri.

En muchos pueblos existe la creencia de que algunas fuentes son mansiones de genios o númenes. Junto a la campa llamada *Petralanda,* situada en Lamíndano (Dima), célebre por las supuestas reuniones y fiestas que en ella celebraban las brujas de la región, existe una de esas fuentes. Otra es la llamada *Mariturri* "fuente de Mari", sita cerca de Arbulo y de Orenin. Es dicho corriente en esta comarca alavesa que si alguno pisa la yerba que hay junto a *Mariturri,* pierde la memoria.

Otras fuentes hay que son consideradas como beneficiosas. Así son: *San Juaniturri* de Yantzi o Igantzi, *Saniturri* de Beorburu, *Damaiturri* e *Iturrisantu* de Betelu, Iturrisantu de Atáun, Sandailli de Oñate, *Urbedeinkatu* de Olazagutía y *Ainguiruiturri* de Anocibar. En esta última, muchos se bañan o se lavan por San Juan, y le echan monedas como ofrenda, costumbre que también se practica en Santa Engracia, en *Arpeko-saindua,* como lo hacen echando piedras en el aljibe de Ujué y en el de Javier.

En algunos pueblos ofrecen como ofrenda el pan de Nochebuena al río que, saliendo de su cauce, amenaza inundar los campos y los pueblos, y al mar embravecido, para que retrocedan y se calmen.

Hemos apuntado brevemente unos hechos que dan idea de la importancia que tuvo el agua en Vasconia en los tiempos prehistóricos. También hemos señalado algunos ecos de costumbres y de creencias que posiblemente partieron de aquella edad. Tal ha sido nuestro propósito al redactar estas líneas.

El hombre prehistórico vasco y el mar
Histori aurreko gizon euskalduna eta itxasoa

JESUS ALTUNA

Los restos prehistóricos más antiguos que conocemos en el solar vasco datan del Paleolítico Inferior, distante de nosotros más de 100.000 años. Estos restos son en su mayoría hallazgos aislados, correspondientes a la parte meridional del País. En esta parte la prospección de terrazas fluviales antiguas es mucho más fácil que en la parte montañosa del mismo, debido principalmente a dos causas. La primera, a la mayor importancia que la labor sedimentaria de los ríos tuvo en la parte meridional, debido a sus largos recorridos por tierras más o menos llanas. La segunda a que el clima más árido permite observar mejor esas terrazas en gran parte descarnadas. En la zona montañosa la labor erosiva de los ríos, que ha abierto profundos valles, apenas ha dejado lugar a una labor de terrazamiento. Por otra parte las pocas terrazas existentes están cubiertas de una gruesa capa de manto vegetal y vegetación, que las hace muy difíciles a la observación. Por todo ello los datos de esas remotas etapas de nuestra Prehistoria, referentes a la relación de aquellos hombres con el mar son casi nulas.

Los únicos restos que poseemos, hallados en la costa, son los pertenecientes a las proximidades de Biarritz y a los últimos tramos de Adour en Laburdi. Así algunas piezas aisladas halladas en el mismo Biarritz, en Mouligna (Bidart), en Mouguerre y en Poîlo (Saint-Pierre-de-Irube) [1] . Todos estos hallazgos se encuentran fuera de su verdadero contexto estratigráfico, pero son suficientes para ver que el hombre en el País Vasco vive a la orilla del mar desde el Paleolítico Inferior.

MARISQUEO PALEOLITICO

Otro problema es el de la relación que estos hombres preneandertalianos tuvieron con el Océano. De ello no sabemos absolutamente nada. Y nada podremos saber en tanto no descubramos sus yacimientos o moradas de habitación. Sólo de ellos pueden obtenerse datos acerca de su alimentación, del posible marisqueo etc...

De todas formas, y por lo que podemos deducir de las épocas siguientes —Paleolítico Medio y primera parte del Paleolítico Superior— no parece que el hombre de estas zonas frecuentaba mucho la costa en busca de alimento. Los yaci-

El contraste mayor con esta obra lo da en efecto la de A. O. Oexmelin, "Histoire des filibustiers - aventuriers americains au XVII siècle" (París, 1888). El texto apareció primero en holandés, Amsterdam, 1678. El autor Exquemelin). A esto sigue una traducción española, "Piratas de América, y la luz a la defensa de las costas de Indias occidentales..." debida a Alonso de Buena Maison (Colonia Agripina, 1681). Sobre ésta una inglesa, Londres 1684 y 1685. La francesa en París, 1684, 1689, 1699, 1726, etc. Unos extractos en "Histoire des aventuriers, des filibustiers et des boucaniers de l'Amerique" (París, 1920). Sobre Michel le Basque, pp. 85-110, de la edición francesa de 1888.

Acerca de la pesca de ballena en Guipúzcoa, Manuel de Larramendi, "Corografía o descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa", edición de J. Ignacio Tellechea Idígoras, (San Sebastián, 1969), pp. 31-33. El texto es de hacia 1754. Sobre la decadencia, p. 211.

La "Theorica y práctica de Comercio y de Marina" de Geronimo de Uztariz, ha sido reimpresa en Madrid, 1968. Véanse en esta edición las pp. 162 a - 236 a. Sobre su autor, "La hora navarra...", pp. 289-307.


Para el estudio de los marinos del siglo XVIII y comienzos del XIX es muy útil la compilación de Don Francisco de Paula Pavía, "Galería biográfica de los generales de Marina, jefes y personajes notables que figuraron en la misma corporación desde 1700 a 1868", cuatro vols. (Madrid, 1873-1874). Allí, II. pp. 365-375, se da la biografía de Don Blas de Lezo, por Don Martín Fernández de Navarrete. Más moderna la del Conde del Llobregat, "Un general español, cojo, manco y tuerto, Don Blas de Lezo, natural de Pasajes" (Irún, 1927), donde se reproducen, entre las pp. 28 y 29, las medallas del almirante Vernon.



AMA-BEGOÑAKOA



Pescadores vascos, Océano hecho carne ...
Euskal arrantzaleak, haragi bilakaturiko ozeanoak ...







... en la captura del mundo del silencio ...
... isiltasun munduaren ...







... muerte en el aire ...

... aireko heriotzaren harrapaketan ...



... dibujan en plata el alimento ...

... zilarrean marrazten du janaria ...



... para volver —espumas
del ocaso— hacia su puerto.
... bere porturantz itzultzeko
—ilunabarreko aparrak—.



Y nuestro antiguo y noble combatiente, perdiendo su neutral expresión de juego, lucha con su enemigo y pierde.

Eta gure aintzinako burrukalari noblea, bere jolas espresio neutrala galdurik, bere etsaiarekin burrukatzen da eta galdu.








El totem ya no protege y es objeto de un ataque de furia impotente.
Totema ez da jadanik babes eta haserre indargezko erasoa datorkio.








Sangrando en olores marineros ...

Itsas usainen odoletan ...






... preparada la tumba de madera ...
... zurezko hilobia prest ...



... la actividad se hace febril en la descarga ...
... iharduna sukarti bilakatzen da deskargan ...



... y se enciende en cristales bajo cero ...
... eta zeropeko lehiarretan izekitzen ...



... para encerrar con el frío el alimento.

... hotzarekin janaria gordetzeko.




JATA
JATA



Recintos vacíos, horas vacías, nuestra imaginación metafísica vacía.
Barruti hutsak, ordu hutsak, gure irudimena ere hutsik.



Después de la pesca y el regreso, la vendeja, cautiva la mujer de su paciencia ...
Arrantzaren eta itzuliaren ondoren, salmenta, emakumea bere pazientziaren gabitu ...



... y los hombres y sus manos recogiendo, puro nervio, las cárceles del agua ...

... eta gizonak eta hauen eskuak, nerbio hutsa, uraren espetxeak biltzen ...



... para cerrar de nuevo sus barrotes, abiertos en la lucha ...
... hango barroteak, burrukan irekiak, berriro hersteko ...






... y volver a cercar, acorralar, sitiar sin tregua ...

... eta berriro etengabe zedatzera, inguratzera, setiatzera ...



... desgranando entre sus dedos infinitos ...

... beren hatz infinituen artean ...



... un rosario de muerte ...

... heriotzazko arrosario bat aletuz ...



... tejido y retejido por el hombre ...

... gizonak ehoa eta berrehoa ...



... para dar vida al cuadro de su vida.

... bere bizitzako koadruari bizia emateko.

Los vascos y el mar

Capítulo II
Empresas comerciales e industriales

Euskaldunak eta itsasoa

II. kapitulua
Merkatalgo eta industria-elkargoak

JULIO CARO BAROJA

EMPRESAS COMERCIALES E INDUSTRIALES

La acción bélica continua, expresada casi siempre por una lucha con Inglaterra, no impide que se desarrolle el espíritu comercial y que incluso adopte nuevas formas. A fines del siglo XVII Cádiz había desplazado en gran parte a Sevilla como centro de la contratación con América. Esta situación se hizo definitiva en 1720. Por entonces y después, las firmas comerciales extranjeras dominan en la ciudad. Pero al lado de ellas surgen muchos nombres vascos y la actividad de los que los llevaban va siendo conocida. Cuando Cádiz está en su apogeo, con arreglo a un sistema de monopolio discutido desde antiguo, se crea una Compañía de Comercio exclusivo entre Venezuela y Guipúzcoa, la famosa "Real Compañía Guipuzcoana de Caracas", que empezó con gran pujanza en 1728 y que duró con actividad fuerte durante los reinados de Felipe V y Fernando VI, terminando en el de Carlos III. Sobre ella se ha escrito mucho y en su época produjo grandes controversias, dentro y fuera del país. Dentro, unos decían que había arruinado las actividades pesqueras de la ballena y del bacalao, que había producido una polarización de actividades funesta. Los defensores decían que había producido grandes riquezas, frente a un viejo dominio comercial holandés. Pasó la furia del bacalao y vino la del cacao. San Sebastián tiene su hora. Es el momento del chocolate, del soconusco, del "cacao sustancial y con todo su jugo" que dice el Padre Larramendi, gran defensor de la "Real Compañía", aunque al tiempo en que escribía su "Corografía" se queja de que ya tenía poco de guipuzcoana, que estaba centralizada en Madrid, frente a lo que ocurría con las de La Habana, Sevilla y Zaragoza, y que mejor se podía llamar compañía manchega o cortesana. Muchos se habían hecho riquísimos con ella. No los que más trabajaron en su dirección: sí factores, capitanes, oficiales de navíos, mercaderes en grueso, etc.

Dejemos a los economistas y políticos sacar consecuencias moralizadoras en torno a la "Real Compañía", sus explotaciones en Venezuela, etc. Indiquemos sólo que tanto en el transporte como en la vigilancia de las costas americanas empleó muchos barcos y que sólo ya en 1780 experimentó mayor quebranto

MERKATALGO ETA INDUSTRIA-ELKARGOAK

Etengabeko gudaketak, Inglaterrarekiko gataskan beti ageri, ez zuen merkataritza-gogoa galerazo, ezta honek bestelako itxurak hartzea ere. XVII. mendeko azkenalderako, eta Ameriketako kontratari dagokionez, hein batez nagusitua zitzaion Cadiz Sevillari. Eta 1720-raz geroz, tinkotu egin zen egoera hori. Bai ordurako, bai gero ere, atzerritar merkata-elkargoak jaun eta jabe ziren hirian. Baina beroien ondoan, euskal izen pilo bat sortu zen, eta piskanaka ezagutuaz joan zen zeramaten ekintza.

Cadiz bere gailurrean zenean, eta aspaldidanik eztabaidatzen zen monopolio-sistema baten arabera, Venezuela-ren eta Gipuzkoa-ren arteko Merkat-Elkargo berezi bat sortu zen: "Real Compañía Guipuzcoana de Caracas" famatua. 1728-an hasi zen bere lanean, oso bultzada handian; eta Felipe V eta Fernando VI.ren erreinualdian barrena ekin zuen gogor, Carlos III.renean amaitzeko. Erruz idatzi da hartaz, eta bere garaian, bai herrialdearen barruan bai kanpoan, berebiziko hizpideak eman zituen.

Balearen eta makailauaren arrantza errekarazi zuela, eta langintzen polarizaketa galgarria lortu zuela esaten zen barrukoen artean. Aldekoek, berriz, holandar nagusitasun zaharra gaindituz, makailauaren beroaldia pasa, eta kakaoarena etorri zen ondasun gaitzak sortu zituela esaten zuten. Bere txanda egokitu Donostiari. Txokolatearen garaia zen; Aita Larramendiren hitzez esateko, "oin-kakaoarena eta beronen muin guztiarena". Hots, Aita Larramendik bere "Corografía" idatzi zuenean, gipuzkoartasun gutxi zuela uste zuen, Madrilletik zuzendua (eta hau La Habana, Sevilla eta Salduba-ko Elkarteei gertatzen zitzaienaz bestaldera); eta, hortaz, hobeki dei zitekeela mancha-tarra edo gorte-tarra. Jende anitz zeharo aberastu zen haren medioz. Ez, halere, haren zuzenketan lan egin zutenak; bai, ordea, tratulariak, kapitainak, ontzi-ofizialeak, eta, oro har, merkataritzaren alorrekoak.

Utz ditzagun ekonomilariak eta politikariak ondorio moralkorrak ateratzen: "Real Compañía" delakoaz, Venezuelako haren bilaketez, eta abar. Gauza bat

a causa de la captura de un convoy valuado en 200.000 libras por el almirante Rodnoy.

La guerra marítima con Inglaterra,que caracteriza el final del reinado de Carlos III, no ha sido aún valorada en todas sus consecuencias, como uno de los golpes definitivos al "Antiguo Régimen" español, en conjunto.

A la "Real Compañía Guipuzcoana de Caracas" vino a sustituir la de Filipinas, en 1785, que se dice constituida sobre las ideas del famoso abate Raynal. Sobre ella se cifraron grandes esperanzas y uno de sus creadores, el Conde de Floridablanca, afirma que produjo grandes riquezas. En general, en todos los negocios montados sobre la protección real durante el "Antiguo Régimen", como en otros después, hubo abusos de los particulares. El mismo Padre Larramendi en su movida autobiografía habla de uno que se produjo en la fábrica de anclas de Hernani, a causa de cierto asiento, que por lo demás, llegó a buen fin. Otras empresas parece que no pasaron de una situación embrionaria, como la de la constitución de una compañía ballenera, ordenada en 1732, empresa en la que también se interesó la compañía de Caracas, la cual organizó una expedición poco afortunada en 1753.

bakarrik azpimarratuko dugu: bai garraioan bertan, bai amerikar itsasertzen zaindaritzan, ontzi pilo bat erabili zuela, eta 1780-an bakarrik jasan zuela kolpe garratz bat: Rodney almiranteak 200.000 esterlinetan baloratu zuen ontzi-multzoaren galeran.

Carlos III. erreinualdiaren azkena markatu zuen Inglaterrarekiko itsas-gudaketa ez da, gaur gaurkoz, bere egiazko tamañan neurtua izan; baina izan, eta oro har, españatar "Antiguo Régimen" delakoak hartu zuen kolperik latzenetakoa izan zen hura. 1785-an, eta Raynal abadearen ideietan funtsaturik omen, Filipinas-ko Elkarteak ordaindu zuen "Real Compañía Guipuzcoana de Caracas" hura. Esperantza gaitzak ezarri ziren hartan; eta sortzaileetako batek, Floridablanca-ko Kondeak, aberastasun handiak sortu zituela dio. Normalean, eta antzinako erresuma-moldearen barruan eraikitako irabazpide guztietan bezala, erregetzaren babesean alegia, baita gerozkoetan ere, partikularren gehiegikeriak gertatu ziren.

Aita Larramendik berak, bere autobiografia nahasian kondatzen duenez, Hernani-ko ainguragintzan gertatu zen horietako bat. Eskakin bat izan zen kakoa; gero, dena dela, ongi bururatua. Beste lantegi batzu, berriz, ez bide ziren inoiz bere hozialditik at aurreratu: horietakoa, gonbarazio baterako, 1732-an agindutako bale-elkartea, gero Caracas-ko konpañiak berak gogotan hartua; eta 1753-an zoritxarreko espedizio baten antolatzaile.

NOTAS

Empresas comerciales e industriales.

El auge de Cádiz se marca muy bien en las "Memorias de Raimundo de Lantery, mercader de Indias en Cádiz, 1673-1700" (Cádiz, 1949).

Respecto a las controversias sobre la Compañía de Caracas, Larramendi, "Corografía de Guipúzcoa..." ed. cit. pp. 207-212. Un juicio de la época en Joseph Towsend, "A journey through Spain in the years 1786 and 1787...", II (Londres, 1792), pp. 401-404, a los que sigue un juicio sobre la de Filipinas, pp. 404-408. El del Conde de Floridablanca en "Obras originales" (B.A.E., LIX) p. 336 b (en el "Memorial presentado al rey Carlos III") Ver, también, Manuel Danvila y Collado "Reinado de Carlos III", VI (Madrid, S.A.), pp. 277-281.

Sobre la fábrica de Hernani, Manuel de Larramendi, "Autobiografía y otros escritos", ed. de J. Ignacio Tellechea (San Sebastián, 1973), pp. 37-43 (G 51-63 de la autobiografía). El mismo Tellechea ha publicado "Anclas de Hernani, I. El registro de cartas de Don Francisco Antonio de Oquendo, Inspector de la fábrica de Anclas (1750-1755)" (San Sebastián, 1977).



Los alientos marineros ...
Itsas arnasak ...



... se remansan ...

... pausatzen dira ...



... en la paz del bote solitario ...

... batel bakartiaren bakean ...

... y las artes de la pesca reposan sus silencios al acecho ...
... eta arrantzako arteak atseden isilean baina zelatan ...





... murmullos entre azules, remos pausados.
... urdin arteko murmurioak, arraun nagiak.

Pescadores de caña: transparencias de sedal, trampas de acero.
Amuko arrantzaleak, zurdazko gardentasunak, altzeiruzko lakioak.








Marisqueros, ancestrales artes de vivir del mar.
Itsaskizaleak, itsasotik bizitzeko aintzinako arteak .



El puerto se hace vuelo en la calma ...
Portua hegada bihurtzen da baretasunean ...




... y la noche una hoguera fugitiva en el cristal.
... eta gaua su iheskor bat leiharrean.



Pentagrama ...
Pentagrama ...





... de botes ...

... untziena ...





... en reposo ...

... atsedenean ...





... escaleras de luz y color sobre el agua .

... argizko eta kolorezko eskailerak ur gainean .

Los vascos y el mar

Capítulo II
Contrastes
Vuelta al principio

Euskaldunak eta itsasoa

II. kapitulua
Gorabeherak
Gibelorakuntzak

JULIO CARO BAROJA

CONTRASTES

En conjunto, la época es de grandes esfuerzos con resultados desiguales. Hay una tendencia a idealizarla, pensando en la "Ilustración", en la acción de los que dieron lugar a la fundación de la "Real Sociedad Económica Bascongada de los Amigos del País", etc. Todo, o casi todo, tuvo duración no larga y está envuelto en conflictos. En los tiempos de Carlos III y comienzos de Carlos IV, los esfuerzos sostenidos se expresan, también, en ciertas empresas marítimas con carácter científico y ocurren los últimos hechos de reconocimiento y dominio de tierras lejanísimas. Una figura interesante a este respecto es la de Don Domingo de Bonechea o Buenechea, natural de Guetaria, explorador de las islas de Otaití o Taití, del que Dumont d'Urville dice que en 1772 quiso llamar San Cristóbal a la denominada Maitía por los indígenas y Osnabruck por Wallis.

El fin de este marino cien por cien como el de tantos otros, fue trágico. Podría considerarse que el nombre que simboliza de modo más perfecto la vida estudiosa y esforzada del marino con inquietudes científicas fue el de Don Cosme Damián Churruca (1764-1805).

Churruca es muy conocido por su trágica muerte; pero en vida y después le dieron gran reputación entre los estudiosos, sus trabajos de cartografía, producto del reconocimiento de costas difíciles en condiciones penosas. Churruca, por otra parte, fue lo contrario en todo del marino alborotador y turbulento, bebedor y mujeriego; "llegó a ser capitán de fragata –se lee en su panegírico de 1806– sin saber jugar a los naipes, ni haber fumado, ni bebido vino..."

Grandes contrastes. Esta imagen del oficial severo, casi ascético, contrasta con la del capitán de barco de la vieja canción, aficionado al vino más que a la ordenanza, con su sotabarba roja y aire de pirata de novela de Stevenson; "Ni naiz capitan pillotu. Neri bear zait obeditu". Todo lo da el mar sin embargo, o mejor dicho, la tierra pegada a él. Pero como va dicho, la guerra con Inglaterra marca el comienzo de una postración total, tanto el Bailio

GORABEHERAK

Oro har, ahalegin handiak eta ondorio desberdinak izan zituen garai honek. "Ilustrazioa" gogoan hartzen denean, eta "Real Sociedad Económica Bascongada de Amigos del País" delakoaz pentsatzean, urdintzeko eta bikaintzeko joera gertatu ohi da. Baina dena, edo ia dena, istilutan oratua izan zen, eta ez zuen oso luzean iraun. Carlos III.-ren urteetan, eta Carlos IV haserakoetan, halako zientzi-kutsuko itsas-lantegitan mamitu ziren orduko ahaleginak; eta orduan ere mamitu ziren lurralde ezinago urrunetan barrena egin ziren azkeneko miakuntzak eta jabekuntzak.

Honi buruz, Domingo Buenetxea-koaren irudia da interesgarria. Getariarra jaoitzaz, O-Taiti edo Taiti uharteen ikertzaile, honetaz zion Dumont d'Urvillek, bertakoek Maitia zeritzoten uhartea San Cristobal bataiatu nahi izan zuela, eta Wallis-ek Osnabruck deitutako berbera. Ehun ehuneko itsastarra zen gizon honen amaiera, beste milarena bezala, trajikoa izan zen.

Zientziazko kezkak dituen itsas-gizonaren eredutzat har liteke, ordea, Kosme Damian Txurruka-rena. Beti ere ikasle eta beti ere biziera saiatuan, Txurruka (1764-1805), bere heriotza trajikoaz ezagun da gehienik. Baina bai bizi zelarik, bai gero, ospe handia eman zioten ikasleen artean bere kartografi-lanek. Egoera zailetan eta itsasertz garratzetan bildutako ezagueraren frutu ziren horiek. Txurruka, bestalde, zeharo izan zen marinel nahastale, erronkari, edale eta emakoiaren ukaera: "kartetan jostatzen ez zekielarik, eta ez erre ez edan egiten ez zuelarik –irakur daiteke 1806-ko bere gomutakinean– fragata-buru izatera heldu zen".

Gorabehera harrigarriak. Ofiziale gogor, ia aszetikoaren irudi hori, eta ontzi-kapitain arruntarena, elkarren ukazio dira. Bigarren hau araudia baino ardoa nahiago baitu; eta, itxurari dagokionez, hor du bere kokots kirrua eta Stevenson-en nobelako pirata jitea. "Ni naiz kapitan pillotu, neri bear zait obeditu".

Arriaga, que estuvo al frente de la Marina durante muchos años, como el responsable de la Hacienda, Don Miguel de Muzquiz, murieron con la sensación del fracaso encima. Cuando Jovellanos visitó Bilbao, durante el verano de 1791, el astillero estaba ya en plena decadencia. Luego no hubo coyuntura para que se mejorara la situación: guerras de la Revolución, guerras con Inglaterra, Trafalgar, guerra de la Independencia. El marasmo de Fernando VII en fin. La pérdida del imperio colonial y la crisis de la arquitectura naval en madera se van sucediendo, sin dar tiempo al tiempo. La imagen del mar antiguo no desaparece de modo fulminante, sin embargo. Todavía durante toda la primera mitad del siglo XIX hay muchas personas que viven *en él*. La ruina del poder naval de España no impide que siga funcionando una humilde marina mercante a vela, una flota pesquera de hombres arriesgados que, a veces, se meten en aventuras locas o en empresas peligrosas. El oficial de marina rumia las glorias pasadas. De este rumiar salen obras históricas ingentes, como la de Don Martín Fernández de Navarrete. Pero contemporáneos suyos son los últimos corsarios de la tierra vasca francesa. También multitud de capitanes y gentes de mar que se ven metidos en la trata de negros. Aún a fines del siglo XIX, en puertos como el de San Sebastián, había viejos marinos retirados, de los que navegaban por los años de 1840 o 1850, a los que la voz popular atribuía el haber estado metidos en el mercado de ébano y aún cosas peores.

Alguno de éstos dejó memorias curiosas sobre sus actividades múltiples y arriesgadas, porque la trata de negros podía dar con uno en un pontón inglés y otras, como el transporte de chinos por el Pacífico a las costas de la América septentrional o meridional (de California al Perú), producían también grandes quiebras.

En ámbitos profesionales más regulares los marinos mercantes vascos que pasaron por momentos muy difíciles cuando se independizó América, regularizaron luego sus relaciones con los puertos americanos y mantuvieron sus viejas derrotas a Cuba. También a Filipinas, bordeando las costas de Africa, antes de que se abriera el Canal de Suez. De este trato y comercio hay cantidad sensible de testimonios inéditos, todavía, en algunas casas del país.

Itsasoak ematen zuen guztia, halere; edo-ta ondo-ondoko lurraldeak. Baina esana dagoenez, Inglaterrarekiko gudaldiak gainbehera osoaren hastapena markatu zuen. Bai Arriaga balia, urte askotan Armada-buru izana, bai Migel Muzkiz-koa, Altxorraren buruzagia, porrotaren sentsazioa gainean zutelarik hil ziren. Eta Jovellanos, 1791-ko udan Bilbon izan zenean, gainbehera betean zihoan ontziola.

Geroztik, egoera ontzeko adiuntzarik ez zen mamitu: Iraultzaren gerlak, Inglaterrarekiko gerlak, Trafalgar, Askatasunaren gerla. Eta azkenekotz Fernando VII.aren deskalabroa. Etenunerik gabe joan ziren, ilaran, koloni-inperioaren galtzaira eta zurezko ontzigintzaren krisialdia.

Antzinako itsasoaren irudia, dena dela, ez zen tupustean ezabatu. Oraindik ere XIX. mendeko lehenengo erdian, itsasoan *bertan* bizi zen jende piloa zegoen. Españaren itsas-indarraren porrota hor izanik ere, belazko merkataritza-armada apal bat bazegoen, lanean ari; gizon ausarten arrantza-ontziteria, aldizka, mentura erotan eta saiaketa arriskutsutan ari.

Antzinako loriak hausnartzen zituen Armadako ofizialeak. Eta hausnarketa horietan mamitu ziren berebiziko kondaira-lan eskergak: Martin Fernández Navarrete-koarena horietako bat. Haren garaikide izan ziren azkeneko euskal ipartar kortsariak. Baita beltzen tratutan sarturik ibili ziren kapitain eta itsas-jende pilo bat. Oraindik ere XIX. mendeko azkenaldian, eta Donostiaren tankerako bortuetan, baziren itsas-gizon zaharrak, erretiratuak, eta 1840-tik 1850-ra itsasketan ibiliak; eta famak zionez, zurbeltzaren salerosketan eta gauza itsusiagotan sartuak ibiliak omen ziren.

Bere ekintza ugari eta arriskugarrien berri utzi ziguten horietako batzuk beren oroitzapen bitxietan; zeren-eta beltzen tratuak ingles saizulo batetan buka baitzitezkeen; eta beste batzuk, Pazifikoan zehar eta Ipar edo Hego-Amerikatarako txinoen garraioak, galera gaitzak ekar baitzezakeen.

Langintza normalagoetan, oso kinka larria ezagutu zuten euskal marinelek Amerikak bere burua askatu zuenean; geroago birrantolatu zituzten amerikar

Después de la década terrible de 1830 a 1840, parece que hay también un renacer de la marina mercante reflejado en las cifras de construcción naval. Porque de 1848 a 1857 Bilbao sólo construye 257 buques de vela con arqueo de 43.000 toneladas. Esto, sin embargo, es poca cosa si se piensa en lo que pasa en el mundo.

Poca cosa también si se recuerdan las cifras que da ya el mismo Bilbao en 1882, cuando la teórica naval ha quedado radicalmente transformada: 74 buques, con 63.700 toneladas, entre los 368 con 263.450 que constituían el conjunto nacional de *vapores*. Ya hemos dejado atrás, toda nuestra historia... En 1950, Bilbao siempre, sólo, da 184 buques, 394.984 toneladas. Pero ¡ay! el material es ya antiguo. Los tiempos son vertiginosos. No nos sumamos en el torbellino.

En suma, el siglo XIX carece de la pompa y brío del XVIII. No es, tampoco, un siglo como el XVII de esfuerzos y conflictos. Menos aún tendrá la grandeza del XVI y la violencia vital y heroica de los anteriores. Pero la marina romántica nos atrae, pese a su modestia. Epoca de nostalgias ultramarinas en las que las canciones "exóticas" más famosas pueden estar compuestas por un vasco. Recordemos a Iradier, el autor de "La paloma", ¿Mundo final? Si: pero con un recuerdo aún de lo más viejo, acaso de lo más primitivo. Porque aún durante años en los puertos guipuzcoanos, vizcaínos, también labortanos, desarrollan su existencia el pescador de altura y el "arrantzale", el pescador de costa.

VUELTA AL PRINCIPIO

No pensemos en las pescas heroicas de Terranova, en la forma que se hacían en el siglo XVI, pero sí en una intensa actividad.

Lanchas de altura de corte tradicional, como las que se empleaban siglos antes, se siguieron usando hasta la primera guerra civil. Eran de una esbeltez mayor que las del Mediterráneo y no falta quien las ha puesto en relación con las normandas, siglo IX, siglo XIX. Mil años de distancia entre el *principio* y el *fin*.

bortuekiko beren harremanak, eta Kubarako bere bidaiei eutsi zieten. Gauza bera Filipinei buruz, Afrikako kostaldeetan gaindi, Suezko Ubidea zabaldu zen arteraino. Tratu eta merkataritza horren arrastoak badaude, ugari; eta lekukotasun horietako asko argitara gaberik dago oraindik.

1830-1840 hamarrurte ikaragarriaren ondoren, eta ontzigintzari buruzko zifretan ageri, merkat-armadaren berpizte bat izan bide zen. Zeren-eta Bilbok berak, 1848-tik 1857-ara arte, 257 bela-ontzi eta 43.000 tonelada eraiki baitzituen. Hau, dena dela, munduan gertatzen zenarekin alderaturik, gutxitxo zen. Gauza apurra, era berean, Bilbok berak 1882-an, eta itsas-teknikak arras berriturik zeudelarik, eman zituen zifrak gogoan hartuz gero: 74 ontzi, eta 63.700 tonelada; eta hori erresumaren multzoan, egin ziren bafore-ontzien sailean, 368 eta 263.450 tonelada egin zirelearik. Atzean utzi dugu horretan geure kondaira guztia... 1950-an, eta Bilbok berak bakarrik beti, 184 ontzi eman zituen, 394.984 toneladaz. Baina, hara!, tresneria zaharra zen jadanik. Habaila izugarrian isurtzen dira urteak. Eta ez gara prest zurrunbilo horretan.

Hitz batez, XIX. mendeak ez du XVIII. ak zituen aberastasuna eta indarra.

Izan ere, ez da, XVII.aren antzera, ahalegin eta istilu mendea. Are gutxiago du XVI.aren handitasuna, ezta eurrekoen bizibeharrari datxekion bortxakeria. Hala ere, eta bere apalean, erakarri egiten gaitu armada erromantikoak. Itsasoaz bestaldeko urrutiminak, eta barauei zegozkien kantarik "exotiko" enak, euskaldun batek oratuak gerta zitezkeen. Har dezagun gogoan Iradier, "La Paloma"ren egilea. Azken-kutsuzko mundua ote? Bai. Baina zaharragoaren, eta agian arkaikoagoaren oroitzapena zetxekiolarik.

GIBELERAKUNTZAK

Zeren-eta, oraindik luzaz, alturako arrantzalea, kostaldeko arrantzalea, Gipuzkoako, Bizkaiko, are Lapurdiko ere, bortu txikietan, haziaz joan baitzen. Ez dezagun pentsa, jakina, Terranova-ko arrantza ausartean, XVI. mendean egiten zen modu balentriatsuan; bai, ordea, ekintza bizia zela. Tradiziozko itxura zuten txalupak, aurreko mendeetan erabiltzen zirenen kideak berak,

También en los rasgos constructivos había afinidad. El pescador de altura queda incluido, sea ballenero, sea bacaladero, entre los que se llaman "mariñelak", los del "Boga-boga". El pescador de calas costeras es el "arrantzale". Este era un experto en lugares y épocas dónde y cuándo se pescaba mejor. La época de la pesca de la merluza se define como "legatzetea"; la del besugo será "bixigotea"; la de la anchoa "majubatea"; la del berdel "berdeletea", etc. Los procedimientos fueron objeto de su atención asidua, de su observación paciente y perspicaz y así se sometieron a variaciones.

Lo que era válido para comienzos de siglo hoy no cuenta. La merluza más apreciada podía estar entonces en calas pequeñas, se podía pescar con aparejos sencillos, desde bateles de poco tamaño. Una vez agotadas las calas se fue buscando pescado cada vez más lejos, con bateles mayores, operaciones de arrastre, mayor costo. El besugo, que se comenzaba a pescar en noviembre, necesitaba de aparejos propios que se colocaban al amanecer. La pesca de la anchoa prosperó adoptando nuevas formas que requerían la observación de los movimientos de las toninas, para colocar las trainas de modo adecuado. Lo mismo ocurrió con la sardina, que dio lugar a una conocida industria conservera.

El atún había que buscarlo hacia el Oeste, a la altura de las costas asturianas. También requería aparejos especiales, que fueron modificándose con bastante rapidez.

Como es natural, un trabajo colectivo tan metódico, tan expuesto, tan lleno de problemas, siguió dando lugar al funcionamiento de instituciones que procuraban regularlo. Algunas tan antiguas casi como los puertos marítimos en que se hallaban establecidas

Las cofradías funcionan aún, como es sabido. Tienen sus estatutos y sus cargos. No falta en ellas el componente religioso, el criterio asegurador.

Dirigen las subastas de pescado sus autoridades, como el mayordomo, y también las autoridades organizan las votaciones en que se acuerda salir o no sa-

lehenengo gerla zibilera arte erabili ziren. Mediterraneokoak baino lirainagoak ziren; eta normandarrekin alderatu dituenik ez da falta: IX. mendea batetik, XIX.a bestetik. *Hastapenetik bukaerara,* mila urte tartean.

Eraikierazko pleguetan ere, bazen halako ahaidetasunik. Baleari izan edo makailaulari, "mariñelak" deritzenen artean sartzen da alturako arrantzalea: "boga, boga" koak dira. Itsasertzeko arrantzaleari "arrantzale" esaten zaio. Non eta noiz arrantzarik onena jakiten izaten zen hau nagusi. Legatzaren arrantza-aldiari, "legatzatea" esan zitzaion; bixiguarenari, "bixigotea": antxoarenari, "majabatea"; berdelanenari, "berdeletea", eta abar. Saiakuntza etengabez mamitu ziren arrantzabideak; eta ikerketa saiatuz eta argiz joan ziren aldatuaz. Mendearen haseran balio zuena, gaur bazterturik dago. Garai hartan barnera txikitan egon zitekeen legatza, eta tresneria xinplez harrapa, eta tamaña txikiko bateletatik. Arrantz-eskualdeok agortu ahala, ordea, arrunago eta batel handiagotan joan behar; eta horrela, gero eta urrunago, eta arrastaketan, eta gero eta galestiago.

Bixiguak, azaroan arrantzan hasia, tresneria berezia behar zuen, eguntsentian jartzekoa. Antxoaren arrantza teknikak berrituz joan zen aurrerantz: atunen hunat-haratak aztertu behar, eta horren arabera sareak heda. gauza berbera gertatu zen sardinaz, eta honen ondorioz oso ezaguna den kontresbategi-industria berria. Atuna, berriz, Mendebalde aldean behar zen bilatu, Asturias-ko itsasertzen parean. Honek ere tresneria berezia behar, aski azkar aldatuz joana.

Gisa denez, hain sistematiko, hain ausart, hain arazoz betea zen multzo-lan hark, antolatu nahi zituzten instituzioak funtsatzera eraman zuen. Baliarazten ziren itsas-bortuak bezain zaharrak ziren batzu.Jakina denez, oraindik ere ari ziren anaiarteak. Beren arauak eta postuak zituzten. Erlijiozko osakina ez zaie falta, irizpide segurtatzailea. Beroien agintariek zuzentzen zituzten arrain-inkanteak; eta agintari horietxek erabakitzen zuten itsasora irteteko, edo ez irteteko, antolatzen ziren bozketak. Xede honetan erabiltzen ziren kutxa batzu aurkitu dira. Oraindik ere bizi dira zerimonia bitxi batzu, Lekeitio-ko "kaxarranka" delakoaren antzera. Behinola aita-santuz jantzitako gizon bat eramaten

lir al mar. Se han conservado algunas de las antiguas urnas que se utilizaban para este fin, en Lequeitio por ejemplo. También perviven ceremonias viejas como la de la "Kaxarranka" de Lequeitio. En un tiempo el que era conducido sobre un arca, acompañado por otros danzantes y bailaba y conjuraba al mar sobre ella, era un hombre vestido de pontífice, que representaba a San Pedro. Esto pareció irreverente en otro tiempo y se "laificó" la figura, adoptando un traje civil de la época. Parece que a los pescadores les costó mucho dejar el viejo simbolismo. Se explica.

De hoy no he de hablar. Todos en el país vivimos en tensión, pensando en la suerte que les espera a los hombres de mar, descendientes de los que iban a Terranova y dieron la vuelta al mundo sometidos a una burocracia internacional capaz de increíbles actos de violencia, de torpeza, de egoísmo. Lo que significaba ya el concepto de aguas jurisdiccionales se está viendo en una época de hipertrofia de los nacionalismos. También lo que significan la negligencia y la inferioridad diplomática.

Consistía el antiguo blasón de Guipúzcoa en la figura de un rey que en la mano derecha empuñaba una espada, figura que quedaba en la parte superior, mientras que la inferior la constituían las ondas del mar con tres árboles que probablemente, significaban los tres partidos o grupos del país. Si el rey significaba dominio sobre los mares y sobre las personas hoy resulta su figura un poco incongruente. El mar de esta península, el mar vasco en consecuencia, se ha ido achicando desde el siglo XVII, de una manera que preocupa e irrita. El vasco ha sido un pueblo que por una especie de ley biológica ha tenido que recurrir más que a ocupaciones creadoras, como la ganadería y la agricultura a ocupaciones improductivas de nuevas fuentes de riqueza natural, tales como las urbanizaciones, o a las que son francamente destructivas o de consumo: árboles, hierro, pesca... En apariencia esto le ha dado la riqueza y la prosperidad. Esto le ha puesto, también, en situaciones muy permanentes de crisis y conflicto. El ciclo de los enemigos, el horizonte enemigo, se ha ensanchado y alejado o se ha acercado a él, según las tornas. Si alguna vez ha sacado beneficios sensibles de su posición otras muchas esta posición le ha producido zozobras y peligros. Hoy estamos –otra vez– en un momento crítico.

zuten kutxaren gainean (Pedro Santuaren irudia), eta berorren gainean beti, eta beste zenbait dantzarik lagundurik, egiten zuen dantza, eta itsasoaz fonfuru. Lotsagabe ematen bide zuen honek antzinako denboretan, eta aintzindari hori "prakadundu" egin zen, eta haro hartako itxura arrunta hartu zuen. Antzinako sinboloari utzi beharra nekeza izan bide zitzaien arrantzaleei. Noski.

Gaurkoaz ez dut ezer esango. Larriturik bizi gara denok geure herrian, itsasgizonei zer zorte ote datorkien pentsakor. Ezen gizon horiek Terranova-ra joaten zirenen ondorengoak baitira, mundua inguratu zuten haien semeak; gaur nazioarteko burokrazia hotzak mila bortxaketaz, mila okerreriaz eta berekoikeriaz hertsatzen dituelarik.

Garbi dago lege-uren ideiak adierazten duena, gaur, naziokerien betekada honetan. Gauza agiria da diplomaziaren ezikusiak eta ezintasunak zer diren. Gipuzkoako harmarri zaharrean errege irudi bat zegoen. Honek ezpata bat zeukan eskuineko eskuan, harmarriaren goialdean; eta beherekoan, itsas uhinak ageri ziren, eta isasertzean hiru zuhaitz ikus zitezkeen, segurki herrialdeko hiru talde edo giza-multzoak. Itsasoen eta pertsonen gaineko aginpidea adierazi nahi baldin bazuten bederen, aski funskabe gertatzen zaigu gaur hori guztia. Penintsula honetako itsasoa, euskal itsasoa alegia, kezkatzen eta hasarretzen duen moduan txikitu da XVII. mendeaz geroztik. Halako biologi-lege batek eraginik, abel-hazkuntzaz edo nekazaritzaz, eta datxezkien sor-lanez arduratu baino, berezko aberastasun-iturrietara jotzea hobe izan du; hala-nola hirigintzaz, edo-ta guztiz eralgitzaile eta desegile diren beste zenbaitez: zuhaitza, burdina, arrantza... Aberastasuna eta erosotasuna eman bide dizkiote horiek. Baina, era berean, kinkaldian eta istiluan jarri dute horiek behin eta berriz. Nola gerta, etsaien multzoa, inguramendu etsaia, zabaldu eta urrundu egin da batzutan, murriztu eta hurbildu beste batzutan. Egoera hori dela bide, zenbait aldiz hobari garbiak lortu baditu ere, bestetan larridurak eta arriskuak ezagutarazi dizkio.

Gaur –berriz ere– kinka larrian gaude. Behin eta berriz gertatu diren istiluegoera horien kako nagusia zein ote den hemen aztertzea ez da gura arazoa. Baina barrualdean zail gertatu izan da (eta zail bide da gaur ere) "itsasoko

No es cosa de pretender averiguar ahora dónde está la causa fundamental de las repetidas situaciones conflictivas. Pero sí se puede decir que en tierra adentro ha sido (y a lo que parece sigue siendo) difícil entender las "cosas del mar", como, probablemente, también será difícil entender a la orilla del mar las "cosas de tierra adentro". La poca comprensión del terrícola ante el hombre del mar y costa es antigua y ha quedado reflejada incluso en juicios populares.

En un envenenadísimo escrito del siglo XVII que publicó cierto erudito al término de la segunda guerra civil en 1876, con ánimo de molestar a los vascos sin duda alguna, un burgalés le dice a un vizcaíno: "Los hábitos que hay entre vosotros bién sabéis vos que los más son dados por servicios hechos por los que los tienen en el arte de la mar; o porque, hablemos claro, por ser marineros, *arte reputada por baja*". Lo que este pensamiento tiene más de ensimismamiento que de insolencia da que reflexionar. En el siglo XVII podría haber en América gente que no veía que el mar era el sustento del Imperio: gente de tierra adentro, claro es. Hoy parece que existen legítimos herederos de estos hombres perspicaces, que consideran que España no está rodeada de agua por todas partes menos por una, como dice la vieja definición de la península.

kontuak" ulertzea; itsasertzetik, nunbait, "barrualdeko kontuak" ulertzen zail gertatzen den bezala. Lehortarrak itsas-tarrarekiko eta kostarrarekiko erakusten duen itsutasuna ez da berria, eta iritzi herrikoietan beretan ere agertzen da.

Badago XVII. mendeko izkribu ezinago pozointsu bat. Hots, euskaldunak nardatzekotan nunbait bigarren karlistadaren ondoren, 1876-an, argitaratua, hona hemen burgostar batek bizkaitar bati esaten diona: "Zuen artean dauden ohiturak, itsas-konduetan egindako mesedeen ondorioz dituzue, ongi dakizunez; edo, garbiki hitz egitekotan, marinelak izateagatik, eta hau arte zabarra da".

Pentsamendu horretan datzan norberekeria eta hetsikeriak, irain-nahiak berak baino, pentsaraztera eramaten du. Baliteke XVII. mendean Ameriketako zenbait jendek inperioaren janaria itsasoa zela ez ulertzea; barruko aldeko jendeak, noski. Gaur, berriz, gizon argitsu haien ondorengoak badaude, itxura denez; eta España alderdi guztietatik (bat salbu) urez inguratua ez dagoela, penintsularen definizio zaharraren hitzen arabera, sinesten bide dute.

NOTAS

Contrastes.

Mención de Bonechea en Dumont d'Urville, "Viaje pintoresco alrededor del mundo", II (Barcelona, 1841), p. 116 b. Biografía en Fernández de Navarrete, "Biblioteca marítima..." I, pp. 379-382; Pavía, "Galería Biográfica..." I, pp. 191-194; Seoane, "Navegantes guipuzcoanos", pp. 40-41, etc.

El "Elogio histórico..."de Churruca, escrito por su hermano, se ha vuelto a publicar en "Cosme Damián Churruca, y Elorza. Recopilación de noticias biográficas" (San Sebastián, 1961), pp. 9-71. Hay muchas biografías que dependen de este texto.

Jovellanos, "Diarios", 18 de agosto de 1791, en "Obras..." III (B.A.E., LXXXV), p. 27 a.

La situación equívoca de los comerciantes españoles en América, al tiempo de la independencia, queda reflejada en libros como el de Don Eugenio de Aviraneta e Ibargoyen, "Mis memorias íntimas, 1825 a 1829" (Méjico, 1906), donde se da cuenta de negocios marítimos interesantes.

Respecto a memorias de hombres de mar metidos a negreros, etc., advertiré que unas, extraviadas luego, de un capitán vizcaíno apellidado Abaroa, utilizó mi tío Pío Baroja, para escribir "Los pilotos de altura" y "La estrella del capitán Chimista" (Madrid, 1930). Antes, en "Las inquietudes de Shanti Andia" (Madrid, 1911), aprovechó recuerdos familiares y de infancia, como he hecho notar en la introducción a la edición de Salamanca, Madrid, 1967, pp. 7-23 y en las notas.


Sobre el desarrollo naviero e industrial del siglo XIX hay mucho escrito. Aparte de los estudios conocidos de Guiard, Lazurtegui, etc., hay algunos artículos técnicos como el de Don Fernando de Azqueta, "La navegación en Vizcaya", en el tomo "Vizcaya Banco de Vizcaya, 1901-1951", n.º 77, pp. 199-208, con bellas ilustraciones.

Vuelta al principio.

Acerca de los rasgos de la pesca antigua y moderna dí una descripción en "Los vascos", 2.ª edición (Madrid, 1958), pp. 215-223, con bibliografía (pp. 224-227) que servirá de complemento a lo dicho antes. De ella destaco ahora, el estudio de José María de Burgaña, "Aspectos de la vida del pescador" , en "Ikuska", n.º 2 (1947), pp. 59-68, n.º 3, pp. 89-100, sobre Motrico.

Sobre el baile de la "kaxarranka" el artículo de J. de Irigoyen, en "Revista internacional de estudios vascos", XVIII (1927), pp. 152-159, y otro de "Eguskitza", en la misma y en el mismo año, pp. 422-436.

Acerca de "El Blasón de Guipúzcoa" la obra de Don Serapio Múgica (San Sebastián, 1915). El texto copiado en último lugar en el "Tratado breve de una disputa y diferencia que hubo entre dos amigos, el uno castellano de Burgos y el otro vascongado, en la villa de Potosi, reino del Perú", en "Castellanos y vascongados" (Madrid, 1876), p. 42 (capítulo II).



El marino ...
Marinela ...



... que hace de sus manos ...

... bere eskuetaz ...





... instrumentos únicos ...
... tresna bereziak ...





... insustituibles ...

... ordezko gabeak egiten dituena ...





... de supervivencia.

... bizitzen jarraitzeko.



Los hombres de la mar ...
Itsas gizonak ...



... escribiendo con sus vidas ...

... beren bizitzekin ...



... una partitura para la memoria ...

... oroimenerako partitura bat idazten ...



... junto al perro, fiel compañero.
... txakurraren, lagun leialaren, ondoan.

Mujeres, pensamientos lejanos, ausencias en el alma ...
Emakumeak, urrungo pentsakizunak, arimako ausentziak ...





... hombres, contando historias ...
... gizonak, kondairen kọndari ...

Los vascos... el mar...
Euskaldunak... itsasoa...

MIGUEL PELAY OROZCO

Forjado y endurecido por el turbulento Cantábrico, el vasco es uno de los pueblos que a lo largo de la historia ha sentido con mayor fuerza la llamada del mar.

Desde siempre, el horizonte ecuóreo, esa línea sutil que señala en la lejanía el beso del cielo y del mar, ha constituido para los hombres de nuestro litoral una especie de reto, de incitación irresistible. Se diría que un mundo fascinante y misterioso se esconde tras el confín mágico, suscitando en nuestras gentes ribereñas desde su temprana adolescencia toda clase de seducciones e inquietudes.

En la antigüedad, en estos tiempos oscuros que podemos calificar con toda propiedad de heroicos, los balleneros vascos debieron de cumplir un papel muy importante en las grandes empręsas marineras. Y sus hazañas, junto con las de sus legendarios colegas escandinavos, normandos y bretones, hubieran quedado grabadas para siempre en el libro de oro de la Gran Aventura, de no habernos faltado algo de lo que hemos carecido siempre los vascos: un mínimo de visión histórica, de intuición trascendente, capaz de exaltar e inmortalizar las acciones de nuestros héroes.

A pesar de todo, tal relieve debieron de alcanzar las audaces expediciones náuticas de los antiguos vascos, que incluso se les ha señalado como los posibles descubridores de Terranova y, por ende, de América. Naturalmente, una conclusión optimista como ésta resulta aventurada y de difícil comprobación, por lo que la dejaremos en el aire.

En relación con Terranova hay también otra versión, según la cual Enrique VII dio licencia a dos venecianos establecidos en Bristol, Giovanetti Caboto o Gaboto o Cabot (que de las tres maneras se le llamaba) y su hijo Sebastián, para que procedieran al descubrimiento de todas las tierras que pudieran hallarse al Este y al Norte de las Islas Británicas. Según esta versión, la expedición anglo-veneciana, de la que, entre paréntesis, se sabe muy poco al no conservarse ninguna documentación, partió en la primavera de 1497 y parece que llegaron hasta la costa del Labrador. Al año siguiente,



Kantauri nahasiak zaildua eta gogortua, itsas-deia sakonkienik senditu duten herrietako bat dugu euskalduna.

Betidanik, urruntasunean zerua eta itsasoa elkartzen diren hegiko musua, halako erronka, halako heupada gaindiezina izan da itsasertzeko gure gizonentzat. Azkenune majikoaren atzekaldean, mundu liluragarri eta izkutua izkutatzen bide zaigu; eta gure kostatarren adimenetan, gazte-gaztetandik, berebiziko deiak eta kezkak sortzen dituela.

Antzinatean, eta oso bidez heroiko bataia ditzakegun denbora ilun haietan, euskal baleazaleek sekulako betekizuna izan bide zuten itsas-ekintza nagusietan. Baina beti ere euskaldunoi falta izan zaigun hori dela bide; alegia, kondaira-ikuskera apur bat bederen, begi-zizta gainditzaile izpi bat bederen, gure gizandien ekintzak goratzeko eta hilezintzeko dohaina izan dugu aurka. Eta betirako Mentura Nagusiaren urrezko liburuan hildoturik gelditu behar zuten balentriak, eskandinabiarren, normandarren eta bretoindarrenekin batera, ez dira hor atxiki.

Halaz ere, antzinako euskaldunen itsasketaren ausarta guztiz aparta izanik, nunbait, Terranova-ko aurkitzailetzat jo izan dira; eta, hau dela bide, Amerikaren beraren aurkitzaile ere bai. Jakina, hau bezalako ondorio bat, arriskutsu gertatzen da, eta egiztapen zailekoa. Eta horrengatik utziko dugu bere horretan.

Terranova-ri dagokionez, beste irizkera bat ere badago. Honen arabera, baimena eman zien Enrike VII.-ak Bristolen finkaturik bizi ziren bi veneziarri (Giovanetti Caboto, edo Gaboto, edo-ta Cabot ere, hiru era horietara baitzeritzon; eta berorren seme Sebastiani), Britaniar Uharteez Mendebalde eta Iparraldean zeudekeen lurraldeen ikerkuntzan hasteko. Ingles-veneziar espedizio horretaz ezer gutxi dakigu, bidenabar esateko, nolanahiko dokumenduak oro galdu baitira; baina 1497-an udaberrian abiatu bide zen harantz, eta Labrador-eraino iritsi bide ziren. Hurrengo urtean, 1498-an alegia, Cabot semeak bigarren bidaia bat egin bide zuen; eta gero Hudson bataiatuko zen lurrarteraino sartu bide zen; eta Terranova-ko itsasertzeko zenbait puntu

esto es, en 1498, Caboto hijo realizó un segundo viaje y se dice que penetró en el que más tarde se llamaría el estrecho de Hudson, tocando también en algún punto de las costas de Terranova, isla a la que Sebastián dio el nombre de *Terra de Baccalaos*. Esto, ya de primeras, parece absurdo. Atribuir a un veneciano britanizado la palabra "bacalao", común a vascos, españoles y portugueses, y ajena a las demás lenguas romances extendidas: francés, italiano, etc., así como a las sajonas: inglés, alemán, resulta, cuando menos, chocante.

Por cierto que en un libro escrito hace ya muchos años, defendía yo, un tanto audazmente –como se defienden estas cosas– la tesis de que la palabra bacalao precedía del euskera. Y, ¡lo que son las cosas!: años después pude ver, si no confirmado rotundamente mi punto de vista, al menos consignada su posibilidad, en el Corominas.


También se ha escrito que en 1500 llegó a Terranova el portugués Cortereal, a quien cabría atribuir con mayor verosimilitud el empleo del vocablo de marras. Y hay historiadores que sitúan en 1504 la presencia en la isla de los pescadores vascos, rocheleses, bretones y normandos, todos ellos en busca del bacalao.

Ahora bien. Hay que prestar atención a la ballena, que tuvo una gran importancia en la historia marinera e incluso económica de los antiguos vascos. No tenemos más que ver que todavía quedan escudos y sellos de municipios del país, por ejemplo, los de Lequeitio, Bermeo, Biarritz y Guetaria, en los que aparece la ballena, unas veces lanzando el característico chorro de agua (o de aire húmedo según precisiones ulteriores); otras, perseguida por alguna embarcación a remo, con el arponero a proa. Por si fuera poco, todavía perduran en algunos montes que dan al mar, nombres como *Talaimendi* o Monte de la Atalaya, en Orio, y la Peña del Ballenero, en el monte Ulía, entre San Sebastián y Pasajes de San Pedro, que testimonian la presencia antigua del gran cetáceo en nuestras aguas.

ikutu ere egin bide zuen, uharte hura Sebastian-ek "Terra de Baccalaos" deitu zuelarik. Bitxi gertatzen da "bacalao" hitz hori veneziar baten lepora ematea; zeren-eta hitz hori, euskaldun, españatar eta portugaldarren ahotan arrunta bazen ere, ezezaguna baitzen hizkuntza erromantze ezagunetan: frantses, italiera; eta gauza bera sajonetan: ingles, aleman, eta abar.

Hain zuzen ere, orain dela urte asko idatzitako luburu batetan, ausarki xamar –alegia, gauza hauek defenditu ohi diren bezala– defendatzen zuen makailau hitza euskaratik zetorren teoria. Eta, nondik nora!, handik urte batzutara, eta Corominas-enean, guztiz baietsirik ez bada ere, ene irizpidea posibletasunaren alorrean sarturik topatu nuen.

Terranova-ra 1500-an Corterreal portugaldarra iritsi zela ere idatzi izan da, eta egokiago bide letorkioke izen hori gizon honi besteei baino. Eta badira kondairagile batzu, ere berean, euskaldun, rochelatar, bretoin eta normandar arrantzaleen etorrera uharte hartara 1504-an ezartzeko; eta denok makailu bila hara joanak.



Hots, balean jarri behar dugu arreta; antzinako euskaldunen itsas-kondairan, are ekonomikoan ere, garrantzi handia izan baitzuen baleak. Ikusi besterik ez dago udaletxeetako harmarrietan eta zigiluetan agertzen diren baleak: Lekeitio-koan, Bermeo-koan, Miarritze eta Getariakoetan. Batzutan ur xirripa bitxi hori darielarik (geroko zehaztasunek azaldu dutencz, aide hezea); beste batzutan, berriz, arraun-ontziren batek erasoa, harpoinlaria brankan ageri delarik. Baina hori guztia gutxi balitz ere, itsasoaren aurrean dauden mendi batzutan, gure uretan zetazeo gaitzaren izana salatzen duten leku-izenak badaude: Orioko Talai-mendi deritzona; eta Donostia eta Pasaia San Pedro-ren artean, Uliamendian, Baleazalearen Harkaitza.

